

Jon Andoni Irazusta

BIZIA GARRATZA DA...

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Bizia garratza da...*, Jon Andoni Irazusta
(Joseba Amundarainen edizioa). Euskal Editoreen
Elkartea, 1991

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00524.htm>

Nere aita zanari

Amaika gauza zuzen erakusten zizkidatzunean,
etzendun asko uste ontaraño okertuko zirala.

Ondorengo itzak eskeintzen dizkitzut,
zureak beti gogoan goxatuz dauzkatala.

ITZ BI

Neronek dakit ongiena idazle kaxkarra naizela. *Joañixio* idatzi nunean, nere ustez naiko egin nun: lezatekenai, ni baño askoz obeak diranai, jarraitzeko bidea iriki. Ez nun beste bat egiteko asmorik. Artan negola, ara zer gertatu zitzaidan:

Puerto Ricon bizi nitzan. Alakorik batean, eskutitz bat iritxi zitzaidan ontara zuzendua: «Exmo. Sr. Juan Antonio de Irazusta, Embajador de Colombia, Puerto Rico». Parrari eman nion, zeñena ote leikian itxuratu gabe, bañan nere adixkide onenetako batek jolaserako gogoia zeukala ziur xinixtuz. Bai zera! Ezagutzen ez nun euskaldun batena zan. Aidanean, *Joañixio* irakurri berria zun, eta berebiziko zigorkada ematen zidan gramatika alde batera uzten nualako. Amaika akats agertu zizkidan! Gogo onez. Argatik, esker milla berari.

Nere lagun ori oso jakintsua ote zan edo ez jakiteko, kartestalkitik asita antz eman nezaiokean. Filolojia asko ote zekin sumatzea ez zan zailla, Batezere fonetika ta *linea de menor resis-*

tentzia-ren inguruan. Obeki agertzen zan bere zergati guztik euskera gaztelanizko erderaren aurrean jarrita sortzen zituala. Esandako oieri, eta *noski*, itzik tolosarrena, tolosar bati noiz erabilli lezakean erakusteari ez nion ajolarik eman. Ezta ipitzik ere. Garrantzia or ez zegon. Garrantzia beia bañan lenago zintzarria erosten zegon. Garrantzia eta kaltea.

Denok dakigu euskerak bizi bear ba du, orain dagon eratkan, euskera jakintsura biurtu bear dala. Gañera, euskeraren eriotza aberriaren elizkizunen bezpera litzakela. Garbi dago jakintsu egiteko gizaldi bat eta bi naikoak ez dirala. Ikaskintza guztik euskeraz, eta ortarako akademia jator bat egiterako urteak joango dirala. Bitartean eginkizun bat bakarrik dago: *zabaldu*, garai ura irixterako al egiña euzkotarrak euskeldun izan ditezen. Eta zabaltzeko, *erreztu*. Ori da une ontako lana. Euskeraz idazten duanak, gogoan gauza bat euki bear du: zenbat irakurle bilduko ditun. Igarri bear dio, gramatika eskun duala idazten ba du, konparazio batera, amar izan lezazkikela, eta lasai, mordollo, idazten ba du, eun izango dituala.

Lenengo, beia bear da, euskera zabaltea, eta orduan izango da apaintzeko garaia, ordun zintzarria ipintzekoa.

Esan detan lagun orren eskutitza etorri zitzaidanean, oldozmen oiek guztik burrundaran bururatu zitzaizkidan. Ala erabaki nuan «Enbajador»-eak erantzun bearrean, nik beste edesti onekin erantzutea. Eta ala dator argitara *Bizia garratza da*. Jainkoak lagundu dezaiola euskera zabalitzen. Eta irakurleak barka dezaiatela bearrean azaltzen detan bigarren edesti au.



Jurado, Campardo, Coredó! Tropikoan bañan lur aberatsagorik ez da iñun izango, belarra dala, sasia dala, zugaitzak nunai, orlegi biziz dena estalitzen dutela; gizona iritxi dan tokietan berriz, lur asko urtean lau bider artoa ematen dutenak; beste akatsak izango dituzte, bañan lur aberatsak besterik ez bezelakoak. Lur aien tartean, esandako iru toki oiek beziñ ederrik ez. Bai toki politak!

Itxasotik ikusten da itxasoa bera nola lurrean sartzen dan zaldiperra balitz bezela, Donosti ta Donibanekoen antzera, aurrekoaldean 38 kilometro bidean ondartzza urre kolorea dula, eun kana zabal bai itxasoa goien dagonean, eta askoz geiago jexten danean, ez mariak gorabera aundik izaten ditualako baizik aldi batean ur txikik diralako.

Ondartzaren atzean basamortu izugarria, itxasoa ez sartzeko orma balitzake bezela, bere kaobo, zedro, guaiakan eta beste zenbat zura ederrenak ematen dituzten zugaitzak, sasi tar-

tean ezkutatu naiean bezela, beren eguneroko lagun diranak, katamotz, suge ta eltxoak besterik sartzea nai ez dutelako. Eta gauza ikusgarri ori oraindik geiago apaindu ta alaitzeko, Jainkoak dakin orkideak, mota guztitakoak, ludian diran lili politenak, basamortutik atera naiean, eziñean, zugaitzetatik bizi bear dutelako, untza bizi dan bezelaxe. Zaldiperra orren erdin, zeiba izena dun zugaitz zabalara, gure intxaurrik aundienak bañan bost aldiz zabalagoa, gabez perikoz betetzen dana, eta argitxintan, edozein otsekin ikaratuta, batbatean ustutzen dana, lurito txaxtar aiek ego aizeak eramango balitu bezela, iñorkiña lez sakabanatzen dirala.

Zaldiperra orren ezkerreko ertzean, arkaitz tartean, pulpo ikaragarri bat balitzake bezela, Jurado, bere 300 biztanle beltzekin, berrogeinbat etxe antzeko etxola edo zuloetan sartzen dirala. Etxeak al dira gero? Lau kañabera sendoren gañean zurezko solairua eta ortikan gorago ormak, azpikoaldea belarrezkoa ta gorago lurrezkoa, txapel antzera palmaren ostoak dituztela. Zulo batzuek leio ordekoak; ate antzera, ol bat kaiman larruz bixagrata; barrenen, gela

bakarra. Beltz aiek ez dute geiago bear. Itxaso
ziaro aserretuko ba litzake, denak Jesus batean
eramango lituzke, urtetan eta urtetan gañerako
gizoneri zantzurik iritxi gabe. Antxe itxasoratzen
da Jurado izen dun ibaia. Juradon gora errez joan
leike, gero ontzik bizkarrean dirala mendiaren
beste aldera irauli eta Taira ta Balsa ontzitan
bertako indio paketsuk arkitu arte. Indio oiek
Panama eta Colombiako muga mugan bizi dira.

Zeiba dagon tokiak Jamparado izena du. Eta
zaldiperraren beste muturrak, Coredon. Onen
gañean orma antzeko arkaitzak igotzen dira
amar metro bidean, eta aietatik ederki ikusi leike
ezkerretik edo eskubitik eta naiz itxasotik arro-
tzen bat ote datorren. Antxen bait itxasoari begi-
ratzeak aspertzen ez duala. Batezere illunaba-
rrean, urdiñ illunak alde egiten duanean, eguz-
kiaren drizdrizarekin esango litzake arraitxoak
milloika burrukan dabilzala illunak ezkutatu
arte. Coredon geienez ez da iñor bizi. Alaz guz-
tiz, guretzat zerbait ikusgarria ba du: Tonto-
rrean, zura ederrenez egindako etxe bat, ez ongi
zerratuk bañan bai zabal eta sendoak; ormak eta
gaiña oltxikixeagoakin bañan zura berdiña; eta

bere atzean sei etxeordeko morroiak larri sartze-ko diñakoak. Orrera joaten zan noizean bein, bere kontrabandoko ibilleretan, Luis Gomez Lekube, «El cojo Gómez» esaten ziotena. Gure ixtori ontan geroxeago agertu bat egingo du, ta orrengatik aurreratu degu nolakoa dan bere jau-regia. Orain, beste zer esanak, garrantzi aundi-gokoak ba ditugu, eta aiekin asi bearko degu.



Gutxi gorabera bi illez bein Bordeleko kaietara zijoanak, gizonek ainbeste aldetara zikindutako Garonne izena dun ibai artan, ikusi zezakean ontzi zuri sabelaundi bat, bi tximinikoa, lozorroan uretan etzanda, sabela bete zai Ameriketara joateko. «Cuba» zan. Arren mirabe aundia ume bat balitz bezela zuriz jantzita ikusteak begiratu batera nornai arritzen zun. Eta ez zan arrigarria: urtean zazpi zortzi aldiz joan bear izaten zun Bordeletik Puerto Limonera bereala itzultzekotan, eta bitartean, Guadalupetik Costa Ricaraño-ko tarte ortan, bero izugarritan iraun; eta, jakiña, beroa uxatzeko zuriz jantzita zegon ongiena. Kaiari eantsita zegon garaiean ango ardalla ez zan nolanaikoa izaten, lenengo ustutzeko ta ondorean betetzeko. Ameriketatik etorri zan eta Ameriketara zijoan, jendea zala, andik ekarritako algaroi pardoak zirala, bananak, ganau, kaiman larruk eta abar kaian bere saitsean pillatuta, al beziñ len Prantzin barrura eramatekotan; kajak eta kajak, soñekoz, oñetakoz, makinaz eta gañe-

rakotzaz beteak Ameriketaratzeko; gizon muturbeltzak bata bestearen ondorean ontziaren labetarako ikatza sartzen; gruaren kirrikimarrakak eta bapore ziztuk, edozein kai aunditan ikusten dan antzera. Garai batean iñork ez zun asko usteko aberastasun ura guztia doixtarrek torpedo batez ondatu bear zutela. Bañan ala gertatu zan.

Udazkeneko illunabar otz batean, «Cuba»-ren ingurun pakea besterik ez zegon. Lanari utzi eta denak alde egin zuten. Kaian, ontziaren alboan, bi gizon bakarrik agiri ziran; bata algaroi pardo baten gañean exerita, ixtarrak gainka, ezkerreko eskua ixtarrean, eskubiko ukalondoa esku orren gañean, eta kokotza beste esku zabaLEAN; Rodinen oldozmen zalea zirudin. Gizon arren pentsamentuk ez zuten nolanaikoak izan bear: bere oñetakoen gañean zebillen xagua ez zun ikusten; begik zabalik, itxuarenak bañan geiago balio ez zutela; bestea, eskuk atzekoaldean tolostatuta, an zebillen saitsean lurreruntz begira. Biek, itxuraz, ontziratzeko asmoan zeuden. Uriaurre'tar Andoni ta Zubiburu'tar Ander ziran. Ez batak eta ez besteak ez zuen Amerike-

tara joan bearrik oparo bizitzeko. Oparo ta lasai etxean bizi ziran. Zailla izango zan Ameriketara ain ongi bizitzea. Bañan guda madarikatu baten ostikadak biali zitun eta an zijoazen.

Noizbait Andonik eten zun:

—Utzi ditugun toki, mirabe ta gauzak aztutzerako aldi bat joango da. Ba dakigu goizeroko ta gaberoko pentsamentuk nolakotsuk izango diran. Lanak eta jendearekin itz egin bearrak atzenduko al dizkigu zerbait...

—Orain beñepein aztutzeko gai ederra daukazu: goazen tokin zer ikusiko degun. Bai al dakizu zer gogoratzen zitzaidan?: Ibai zikiñ ori Avernoko putzu nazkagarria dala, Karonte ontziaren gain gañean daukagula ta Kanzerberoren mendera goazela.

—To!; alaitzeko bide ona. Utzi ditzazu mitologia, Virgilio, Dante ta gañerakoak alde batera ta gauza alaiagoren bat esan zazu.

—Arrazoi dezu. Eta bururatu zait.

—Zer?

—Goazen Cafe de Bordeauxera eta antxen Europari despeida on bat egin bear diogu. Gure

txanpon pixkentzat toki oberik ez: gilborrean sartu.

—Goazen, erantzun zion Andonik.

Nabarmenkeri aundietan ibiltzeko ez zeuden, ez. Kutxa ta arropa pixkak erosi ondorean, gelditu zitzaizkien txanponekin ez zuen mordo aundirik egingo. Bañan burua betiko lepotik, batetik, eta oituera zarreri agur egin naia, bestetik, an joan ziran. Apari-merienda goxoa: Marenneseko lapa aunditakoak, Moulin de Soubeyrongo ardo zuriarekin, *ommelette aux fines herbes*, kapea ta *fine de la maison*. Bapo! Etsi etsi egin eta ontziruntz, gau artako amaiketari joatekoa zan da.

«Cuba»ren saitsean zai zeukaten Mr. Biela gizajoa, paperak zuzendu zizkaten Konsularen larogei urteko morroia. Berak zeramaizkien burutazioak naiko ez balitue bezela, Mr. Bielaren atsekabeak entzutea egokitu zitzaioten. Agure errukarri ura, Bordeletik urruti gabe etxe txiki batean bizi zan bere bi alabekin. Etzuten maite. Urrengo argiskillan, noski, azokara joan bearko zun sukalderako janarik erostera; ondorean bi alaberi gosarik oiera eramane eta gero aien bi txakurtxoekin ingurutan ibilli aldi bat egitera.

Azkenean lantegira. Malko sendoak ixuri zitzaizkan gizonari. Zenbaterañokea ote zan bere samina, bi arrotzeri bere atsekabeak ala agertzeak erakusten du. Gure lagunak al egiñak egin zizkaten apaltzera «Cuba»n gelditzeko, bañan bere gogo beroena alde batera utzirik etxera joan zan, etxea zaintzera, bi alabak kabareten bateko dantzatik edo beste erriko zuloren batetik zijoaizen bitartean.

—Atoz gurekin, Mr. Biela, esan zion Uriaurrek. Biren tokin iru berdiñ bizitzen dira. Europa ontan nazkagarrikeria besterik ez dago. Bere iru milla urtetako krakak estalia daukate, eta erratzez goitik bera garbitzen ez dan bitartean emen bizitzerik ez dago.

Mr. Biela gizajoak, negarrari ez, baizik arrantzari, eman zion, eta agurtzeko gauza ez zala, alde egin zun.

—Bañan ikusi al dezu neska arraio oiek agure gizajoa nola daukaten? Zuk esandako erratza gutxitxo da orrenbeste zikinkeri garbitzeko, esan zun Zubiburuk.

Bi lagunak itzik gabe gelditu ziran. Bai Ander eta bai Andonik ez zituzten bere amak eta arre-

ba bana bakarrik utzi. Burun beste zerbait ba zemaikien. Naiz gai ortan elkarren berri asko ez jakin, bien pentsamentu antzekoa zeukaten: Uriaurrek, Bixenta Ozama eta Zubiburuk Miren Orreaga.



Ander eta Andonik bere gauzak goizetikan ontziaren gelatan utzik zeuzkaten. Gelatan, bai, bi zituzten da. Ander, atzekoaldeko gela batean eta Andoni esker saitzeko beste batean egokitu ziran. Asko gutxi biek zekiten ontzi baten barrunbea nolakoa izaten zan, eta ez ziran arritu «Cuba»ko usaiarekin, eskallea piko estukin, ango jende nastearekin. Anderren gela sei oiekoa zan; oiak edo alakoak, nolabait esan bear. Bostetan, beste ainbeste Gobernu prantsesaren morroi zijoazen Guyaneko espetxe zaindari. Aiek alakoak: berak espetxean sartzeko obeak ziruditen. Andoniren gela lau oiekoa zan; bi eskubitan eta bi ezkerretan, bata bestearen gañean, tartean oieratzeko toki estu bat zala. Eta tokitxo orren burun, eskumusuk garbitzeko ontzi bat. Andoniri lagun egokitu zitzaizkanak ura taldea! Bere eskubiko oiean prantses bat, Martiniquera alkandorak saltzera zijoana. Aren gañekoan txeko bat, Caracasen dendari zana. Andoninaren gañean berriz amasei urteko mutill koskor beltz

bat. Amaika bider, lurreratzeke Andonik oiaren gañean ona ipintzen zunean, Andonik begiratzen zion maindireari beztua gelditu ote zan. Prantse-sa, gizon dotorea, iñorekin itz bat egiten ez zuana, bere errin alkate ez zan izango bañan txeiraren goiko zuloan an zeraman lokarri gorri bat, ontziko nagusi izan balitz bezela. Ondorengo egunetan ondo erakutsi zun zertara zijoan: goizero goizero oiaren gañean zabaltzen zitun amar amabi ator, eta batean botoieri, bestean lepoko zenbakiri, urrengoan beatzekin zapia leun leun loxintxatuz erostuneri egin bear zizkaten itzaldik ongi ikasik zeuzkan. Txekoa pake-tsua zan. Leio zulotik argia sartzen zan beziñ len burukopetik ateratzen zun argazki bat; ainbeste musurekin naiko lirdinga eantsitakoa izan bear zun. Bere emaztearena zan, eta gogo guztia Caracasen zerbait irabaztea zun emazte ura bereganatzeko. Ikusgarria beltza zan. Jarduna. Ortzak garbitzen zitunean bereala bere arreba-ren gelara joaten zan ixipua eramatera. Oiera igo ta jetxi egiterakoan armiarma zirudin. Irugarren mallako geletan zer geiago eskatu leike?

Jantokia okerragoa zuten. Iru mai luzetan, sei errenkadetan exeri ziran malla artan zijoazen guztik. An izan zuten lenengo estropozoa. Uriaurren aurrean exeri zanak, zopari dominixtiku egin eta Andoniri soñekoa zipriztiñez bete zion. Eskubitan zeukanak, ardoa edaten zun bakoitzean, gelditzen zitzaion pixka atzekoaldera irautitzen zun. Oiek lenengo arratsean. Ainbeste zikinkeri nork eraman! Nagusiarengana agertu eta bigarren mallako jantokira aldatzen utziko ote zioten galdera egin zuenean, zerbait ordaindu eta utzi zioten. Ura beste gauza bat zan. Eziñ esango degu onetakoa zala, bañan Zubiburu ta Uriaurrentzat garai artan bai beñepein. Betikoa: eskuetan daukagun izaera bat aintzakotzaz artzeko aurretik okerragoak ikusi izan bear; eta eskuetan geneukagun gauza batek zenbat balio zun jakiteko, aurrena galdu egin bear; galtzean jakiten da.

Jantoki polita, lau lagunentzako maitxoekin, morroiek ere obetogo ikasik eta ohea zana, jantokitik kanpora an ezagututako lagunekin ibiltzeko eskubidea. Ezaguerak laixter egin zituzten: ermutar eiztari purrukatu bat, Madrillen sendagi-

lletarako ikasten zegon PuertoRico'tar bat, sendagilletzan apika asko jakingo ez zuana, bañan gazteak dantzatzeko piano jotzen iaioa, eta beste bi mutill gazte kolonbiatarak, Birminghametik zetozenak.

Lenengo goizean, udazkeneko otz arekin estalpean egoteko ohea eta geienak barrenen gelditu ziran. Uriaurre ta Zubiburu bakarrik bi alki artuta itxas ertzeko babes batean exeri ziran. Oraindik an zetozen enarak ontziaren atzetik, urrutira bultza nai balioteke bezela. Bi mutillak zori antzekoan zijoazen. Anderrek esan zion:

—Orain zuren errin eta nerean nola ote daude?

—Elbarrituk, gizajoak. Jende arrotzak, beste berak beziñ arrotzekin sortu dute guda zikiñ au, eun urte bañan geiagorako isatsa utziko duana. Ori ala da. Karlixten orain irurogei urteko gerrateak berrogeitamar urterako eziñ ikusik utzi ba zitun, zuk esango dirazu oraingo odol ixurtze izugarri onek zer utzi lezakean. Senide arteko gudak jolas txarrak dira.

—Jolasak?

—Bai, ori euskeraz esaera bat da, bañan Hui-zinga-k dionez gizonak egiten duten dena jolasa besterik ez da, eta jolas oien tartean guda ere bai.

—Neretzat jolasa laneko nekea kendu ta aztutzeko egiten dana besterik ez da ba izango.

—Dana dala, naigo nuke oraintxe Bixenta nitzaz gogoratzen dala jakitea.

—Gizona! Ori ere ba degu? Nor dan jakin bearko degu ba.

—Bixenta, nere gaitzerako andregai izatera iritxi ez zana. Beltxeran bat, nere antzeko anka-luze xamarra, biotz beroa, buru ona, emakume jaio ez ba zan gizon aundia izango zana, kuttuna, langillea. Elkar ongi ezagutzen gendun maitetasunik aitatu gabe. Bearrik ez zegon. Ez det uste bere sendiak ezetzik esango zuanik. Itz erdi bat esan banion, nerekin etorriko zan. Bañan, nola!, nere buruarekin zer egingo deten ez dakit eta...

—Zergatik ezkondu ez ziñan?

—Ori da galdera. Errez al da esatea? Ongi bizi nitzan. Ondogi. Aldaketa zaill xamarra da. Gero, ni bezelako kopet illun dotore batentzat ezkondu eta maillan bat jextea... bildurra... Ondorean

berriz etxeko eta aideeri ondo irudituko ez ote zitzaien... Garai batean esateko ausardirik izan ez nualako, emen noa orain uda azkeneko aize bolarak iñorkiña daraman bezela. A, Bixenta, Bixenta Ozama!

—Nik ere zerbait esango nuke.

—Gizona: ondo ixillik zeukazun.

—Zuk zurea bezela.

—Eta nor da ba?

—Miren Orreaga. Edozein gauza egingo nuke orain emen nere Miren nere emazte bezela gurekin izateagatik. Gutxitan itz egin gendun, eta ordun ezerezkerik esateko. Nunai elkarri zearka begiratu bai, iñork ikusten ez giñuzela iruditzean. Biontzat garbi zegon maite giñala. Bañan nik lantegi aundi bat jarri nai nuan, eta bitartean ez nun burua beste toki batean euki nai. Ori bai; lantegia ipintzean, bereala nere ille urreantzeko, elbi batek gorritzen dun Miren'engana. Sudur luzea ta ao zabala. Orrekin dana esana dago.

—Egia da. Sudur ori gure abendakoa dalako, ta legatzarena bezelako ao batetik anima ikusten zaiola dirurilako. Gizonetan beñepein, anka-

motxa, atzealdea lurretik bertaratxo duana, ta
ao larrikoa nekez prestuk izan oi dira.

Biek ixilldu ziran ermutarra azaldu zanean.

—Kaxo, jaunak; ollagorretarako giro ederra.

—Bai, gizona, erantzun zion Uriaurrek. Gai-
tza, zuek Ermu inguruko torratxori guztik garbitu
ondorean gure baztarretara joaten zeratela.

—Orain beñepein bildurrik ez dago. Goazen
tokin denentzat da. Len Colombian izan nitza-
nean, goiz batean neonek bakarrik larogeitama-
bost ate ill nituan, Magdalena izena duan ibaia-
ren saitseko putzu zabal batean. Edozein igande-
tan, nere etxetik urrun gabe, basakerra.

—Zu lenago Colombian izana zera beaz?

—Bai; bederatzi urte bizitu nitzan Barranki-
llan eta toki otz eta beroetan zaldiz asko ibillia
naiz.

—Ederki; ortaraz zure bearra izango degu
irixten geranean.

—Bai, bai; ortarako gaude.

Bazkალაurrean irurak exeri ziran garardoa
edatera. Josephen barrean exeri ziranean, laixter
inguratu zitzaizkaten Alberto, Eduardo ta Rafael,
lenengoa PuertoRicotarra eta besteak Colombia-

koak. Esan bezela, Alberto piano jotzalle ona zan. Bikaña. Irurak oso egokik eta jatorrak. Rafael, mutill ederra; apika uste zun bera beziñ ederrik besterik ez zala. Eduardok berriz, mundu onetan izan leizken gaitz guztik berekin zitun, bere ustez beñepein. Urdalla goxatu, gibela igurtzi, eztul bakoitzean sudurzapiari begiratu odolik ote zegon... billera alaia zan. Aurretik pasa ziran iru apaiz. Bat oso zarra; gotzaia bera. Los Llanosera zijoan Monforttarretakoa. Ondorean agertu ziran illekizkur beltxeran batzuek, esan zutenez Caribe aldekoak. Geroxeago emakume prantses gazte bat, begi orlegi, liraña, bere senarrarengana Guyanera zijoana, gero esan zutenez. Uriaurrek erdipurdikon bat esan zun ura ikusitakoan eta denak algarari eman zioten. Alberto pianora joan zan txoria txirin erortzea nai balu bezela. Rafael ontziaren gañero aska zabalera igari egitera. Eduardori bere gaitz guztik aztu zitzaizkan. Ermutarra zintzo bere emaztetzaz gogoratu. Zubiburu par irudi bat gabe, apika emakume arrek Miren gogoratu ziolako. Alaxe iritxi zitzaioten bazkaltzeko ordua. Arratsaldean, kartetan,

igel jokun, eta kurpillatxo bat makillaz zenbaki batzuetara bialtzen zana. Eta berriketa ugari.

Urrengo egunean gure bi mutillak bezperako tokira bertara joan ziran.

—Eta Bixenta?

—Bai; zeñen ezaguera aundikoa dan esango dizut. Azkenengo egunean ala esan zidan: «Aita amak adixkide batzuetara joanak dira ta datozen artean cocktail bat egingo dizut». Alaxe, ixillka, cocktail tartean bizitzea pantesi gauza ez dala. Ez dirazu esango gogoan eukitzeko gauza ez dala, izparringitako argazkitan lauetatik iruetan edaten agertzen diran garaiean, guztik whiskey eskuetan dutela.

—Ala da. Oraingo aldiko argazkik alakoxeak dira. Gizonek ixillka egin bear lituzkeen gauzak agertzen.

—Bakoitzak gauza pantesigarrik erakustea, ortxe nunbait, bañan lotsagarrikerik? Zer esango ote lueke oiek berak bere etxetako ganbaretan agertuko ba lirake bere amonen argazkik baso bat sagardo eskuetan dutela?

—Ganbaretan ongi daudela.

—Gure agurra ez nuan uste ain gogorra izango zanik. «Agur, esan nion, egunen batean zu ta ni gertugo egongo gera». Ez ziran erantzun. Ezin zun. Orduraño bein bakarrik malkoak ikusi nizkan, eta orduan bigarren aldiz. Zerbait geiago esan bear nion. Eta nolabait esan bear diot. Idatzita ez, zensura apaiñ orrek gorde egingo luke par egin ondorean da. Jainkoa lagun.

—Orain aztu zazu. Emendik aurrera amaika bider gogoratzeko egokiera izango degu. Zensura apaña beaz?

—Bai, gizona; eta bere gogoz lan ortara joaten diranak ere ba emen dira.

—Ez al dezu pentsatu Bogotan zer egin genezaguken?

—IV—

Egunero ordulaurden bat erlejuk atzeratuaz iritxi ziran Cuba izena dun erkalaren parera. Zemaizkin ontziaren izena. Cuba ez zan agiri. Urrutitxo zegon. Bero aundia egiten zun, andik aurrera itxaso guztin izango zuenan antzekoa. Eta orduntxe lenengo azaldu zan bere gelatik kil-kerra zulotik ateratzen dan bezela, emakume gazte, mardul, sendo, erdibeltz bat. Rumbak, guaratxak, kongak eta zambak dantzatzen eroa zirudin, bera bezelako beste beltz antzeko batek marakak jotzen zizkanean. Biek Cuba aldera begiratuaz, «Vivan los cubiches» deadar egiten zuten. Izardi patsetan, soñekoa blai, ler egiñ arte ez zan gelditu. Umeek artza tximuiari begiratzen dien bezela danborraren soñuarekin dantzatzen diranean, alaxe zeuden danak ingurun emakume ari begiratuaz. Alberto, Eduardo ta Rafael gogoz, pozik, txikitandik ikusitako gauza zuelako.

—Arrateko ermita aurrean asiko balitzake apaizak zer esana izango luke, esan zion Zubiburuk ermutarrari.

—Arrate ta Arrate ez diran tokitan ere, apai-
zak eta apaiz ez diranak zerbait esango lueke,
erantzun zion.

—Aizazu, Andoni; Bixenta ta Miren jarri ditza-
zu oituera oietara.

—Ez litzake erreza izango. Ikusi utsarekin
lotsatu egingo lirake eta berak nola dantzatu?
Erdi beltz oiek gu bezelakoak ez dira, ta ori da
dena. Guk eziñ ezagutu bere tokitakoentzat
onak ala gaiztoak diran.

Ondorean Haiti, Santo Domingo ta Puerto
Rico pasa zituzten, aiek ere ikusi gabe. Ordun
berriz PuertoRicotar neskatx dantzari bat agertu
zitzaioten txokolateak eskeñiz. Dantzaria izatea
ez zan arritzekoa toki bero oietan, geldirik ego-
teko obeak diranetan, denak dantzarik dira ta.
Boleroa ta hamacaren tartean bizi dira; batean
ez danean bestean; sendi onenetakoak ere sei
urtetik aurrera dantza ikastoletara bialtzen
dituzte. Arrigarria txokolateak zeukaten usaia,
sudurrentzat goxoa ta aosapaiarentzat nazkaga-
rria. Neskatxaren poltsako usaia. Pasmorik sor-
tuko ez zutela ta jan egin zituzten. Albertok bole-
ro bi jo zituan pianoan eta txokolateak neska-

txak eta Rafaelek atorrak ongi busti zituzten dantzan.

Ez Andoni ta ez Anderrek artean ez zuten Amerika ikusi. Arazo ortan ixtoritan ikasitako gauzak eta indianoren bat edo bestek esandakokak zekizkiten. Zebiltzan inguru aietara joan ziran aidanean Colon eta bere lagunak, gizonen artean lenengo aldiz. Apika goraxeago arrantzale euzkotarren batzuek izango ziran lenago iritxik, bai, bañan izena beñepein Colonek eta eraman zuten. Eta gañera lur aieri Colonen lagun baten izena ipiñi zioten aurrenengo mapa berak egin zualako; mapa ori Americo Vespucek egin zualako gaur Amerikak Amerika izena du. Aurrena joan ziran ontzi txiki aietako ardalla gogorazten zitzaioten, eta Batezere ondorean joandakoena. Colonek kutsu antzera indio batzuek, luriton bat, lumak eta abar ekarri zituanean bereala agertu ziran mota guztitako jendeak joan naiean: an lekaide bat edo beste gure dotriña erakusteko asmoetan, an etxekalte guztik aberastutzeko gogoan, ez orain gureak lanera joaten diran bezela, baizik bestek, indio gizajoak urtetan irabazitako urreak lapurtzera, an gudari

biotz gogorak gero bere ondorengoari izen aundia utziko ziotenak Jainkoak daki zenbat indio ill zituelako, an emakume lastaira zikiñak gero etxeoandre aundik izango ziranak. Amerikan konkixta orrek bere akatsak ba ditu. Bat baño geiago eta aundik. Batezere Cuba ta Santo Domingon gogor egin ziranean eta andik konkixta zaleak Panama, Peru, Colombia ta Mexikora joaten asi ziranean. Euzkotarrak ez emen ziran urrun, ez. Beste batzuen artean an agertu zan Lope de Agirre, Perutikan, Amazonasen bera joan, itxasoz Venezuelaraño iritxi, Jainkoak dakin gaiztakerik egin, azkenean bereen eskuetan eriotza gogorra izateko. Azkenengo eguneraño bere alaba izan zuan aldamenen eta besteren mendean ez uzteagatik bere eskuz ill zuan. Amerika, Amerika... Asierako gauza asko aztu eta orain dagon lur ederra bakarrik erakutsi al baleike... Euzkotarrak urrun ez zirala jakiteko naikoa da garai artan edo garai artatik berta-xamar agertzen diran izenak ikustea: Ispizua, Arteaga, Mendoza, Eskibel eta eunka geiago; bañan ori beziñ egia da langilleak eta izen ona utzi zutenak oiek ainbat dirala: or daude Garai eta Mendoza-

ren izenak betirako Arjentirari itxasik, or, gure errien izenak berberak dituztenak gure aurrekoak ipiñik, or, gure aberrin galdutakoak Ameriketan onenen tartean irauten dutenak, Arziniegas eta Marulanda bezela... Gauza oiek guztik bururatzten zitzaizkaten gure bi laguneri izurde ta arraiegalarin laguntzarekin zijoazen bitartean. Itxaso mardulean besterik ez zan agiri. Izurdeak jolasean alboan eta arraiegalarik, txikik, zillarrrezkoak ziruditela, ontzi ondotik atera, egoan irurogei larogei metro joan eta an kaxpajo egiten zutenak. Gizonak burutazio aundik dauzkanean itz gutxi egiten du eta aiek biek ere ez zuten asko egiteko gogorik. Ontzitik ura besterik ikusten ez zan eta egia da besteren bearrik ez zuekatela. Begiz ez zuten ezer ikusten, buruaz bai... sendia... neskaxa... lagunak...

Urrengo goizean Guadalupe ikusi zuten. Ameriketan lenengo lurra. Bi zelaien erditik sartzten zan itxasoaren beso bat, eta an bide luzean joango ziran Point-a-Pitren sartzeraño. Aldamenetako bi zelai aiek bai gauza ikusgarrik: orlegi bizia, lur leuna orlegia besterik ikusten ez zala, palmerak uraren ertzean jaioak, uretara ixpillura

bezela begirutzen, Narciso Hipokreneko iturrin bezela, bere liraintasunarekin zoratuta, ezagun zuten aurrean Debako itxaso ez zeukatela. Ortz garbi garbirik ba da. Eguzkia itxutzeko diñakoa. Uste gabean, Pointz-a-Pitre, Guadalupeko burua.

Ontziaren saits batean, neke asko gabe igari, mutil koskor beltzak, txanpon eske. Ontzitik botatakoak urean jasotzen zituzten bati bakarrik ondora joaten utzi gabe. Siriako emakume gizen bat, bere senar izandakoaren diruk jasotzera zijoana, ari zan arreta izugarrin txanponak al zuan indar guztiarekin botatzen.

—Zergatik indarrean botatzen dituzu?, galde-tu zion Zubiburuk.

—Ara, emen tiboroi asko da agi danez; mutill oiek axalean dabiltzan bitartean ez dira agiri; ondorago izan bear dute; eta ia txanponak ondorago joanda tiburoien bat agertzen dan mutilla muturrean duala.

—Bai, zera! Gixajo oiek kupigarrik dira. Oiek ere anima ba dute.

—Txanpon bat ez dute balio. Oiek emen gauza merkea dira.

Guyanera zijoan prantses liraña aserretu zan eta Siriatar atso ura bera tiburoietara bota bear litzakela esaten zuan.

Ontziaren beste saietsean kaia. Oraindik ez zan oso gelditu bañan an agertzen zan jende saill aundia. Denak elizan bañan geldigo gora begiratuaz, ez ezagunen bat agertuko zan zalan-tzan, baizik onelako ontzik illean iru bider baka-rrik irixten ziralako eta berarentzat gauza ikus-garria zalako. Jende mordo beltz aren aurrean agiri zan gizon beltz apain bat. Uraxe bai beltza. Ia ia urdiña zirudin. Ginballa, soñeko ta oñetako-ak beltzak; atorra, lepokoa ta galtzerdik zurik. Jaun aundiren bat izan bear zun.

Albertok aguakate ta koko ura artzeko bere biziko gogoa zeukan, eta artarako lagunek azo-kara eraman zitun. Aietan laurek pozik artu zituzten. Zubiburuk eta Uriaurrek eztarrin pasa-tzen lanak. Gero, ibillin, ibillin besteak beziñ gogoz artuko zituzten, bai. Uriaurre baztarrak miatzen an ibilli zan. Edozein erri berri nolakoa zan jakiteko lenengo zerkausia ikusi bear zala esaten zun. Baita asmatu ere. Ango aragi erreu-sak, birikak, arrai erdi-ustelak ikusi zituanean

bereala esan zun: «Emen aberats gutxi dago». Errin ikusmira bat egin ondorean laixter konturatu ziran Prantzian mendean zegon bidez dena prantsesa zala.

Andik Martiniquera. Bestea beziñ prantses antzekoa. Kaiako langillen oporrarekin batera iritxi ziran. Ango plaza nagusin, ezta saltzen zan bar baten ingurun erlea ugari, bañan beltzen lagunak izan bear dute ta beltzek barrean aintzakotzaz ez zituzten artzen. Martiniquen okerre-na Puerto Ricoko ta Santo Domingokoen agur egitea izan zan. Bere etxetara joateko «Cuba»tik atera ta beste ontzi txiki batean sartu bear zuten. Ango musu, besarkada ta agurrak gogoratzekoak ziran. Malkoen bat edo beste ere bai. Iñork ez zekin noiz eta nola bañan puerto ricotar dantzari arrek norbaiti ezpañak musura geitxo inguratu zizkan. Neskatzak esan ziona bakarrik entzun zan: «Ergela ez bestena; zeorrek aspaldin eman bear zidazun». Santo domingotar beltzari Uriaurrek esan zion diru asko irabazten ba zun ortzetarako erratzxorik ederrena bialiko ziola; eta beltzak, galtzen atzeko poltxikutik atereaz

Uriaurrek ongi ezagutzen zuna erakutsi zion pantesiz beterik.

Urrengo egunean Trinidaden ikusi zituztenak zertarako esan?. Aurrekotan prantsesa bezela an dena ingalandarra dala?; alkatraz esaten dioten egaztik ogei metrotik kaxpajo egiñaz arrantza zeñen egoki egiten duten Orinocok araño bialtzen ditun zakarretara biltzen diran arraietan?; ango beltzekin kontu bear dala, kaiatik ontziraño ko bitartean itz egiña bañan geiago eskatzen dutelako?; edari gozoak pixkat garratzutzeko Angostura an egiten dala?; Port of Spain-engatik eziñ asko geiago esan leike.

Bigaramonean Venezuela. Caribe bete betean zijoazen. An gogoratzen zitzaizkaten aspaldi ainbeste bider irakurritakoak. An, nola Caribeko indioak gizon aragiaren zaleak zirala; an, piraten itxasoak zala; an, nola batak bestearekin burrukan urre asko zemaikien ontzik nola ondatu zituzten; an, nola gero guda bizin bizitzen ziran itxasoaren nagusi egin naiean; nola itxas ertzeko errik esku batetik bestera joaten ziran. Guztin tartean ingalandar Drakeren izena gogoratzen zitzaieten, eta ura ixtorira izen aun-

diarekin pasa dalako. Jainkoak dakin lapurretak eta ondamenak egin zituan eta alaz guztiz bere erregiñ zan Isabelek al zuan geiena goratu zuan. Nolatan? Itxasoaren nagusi egin zalako. Aietako batean ill ba zan iñor ez zan beretzaz gogoratu-ko, bañan irabazi zuan eta irabazten duanan atzetik guztik joaten dira. Asmatu ezkerro goratu eta errun erori ezkerro ondatu; ori da legea. Bi gizon berdiñetan bat ondatzen ba da ta bestea gauza berak eginda igotzen bada, lenengoa laixter aztua ta bestea santua. Beartsu ona, ezer ez; aberats lapurra, dena.

Azkenik, ba zijoazen Colombiako lurrak ikus-tera. An agertu zan La Goajira, kilometrotan eta kilometrotan arkaitz utsa. An Santa Marta izena duan menditzarra, azpikoaldea orlegi biziz jantzia, erdia illuna eta gaiña edur zuriz estalia. Gezurra zirudin: ontzin ito bear zun beroa ta aurrekoaldean, sudurretan, edurra.

Artan iritxi ziran Puerto Colombiara. Erri-koskor ergel bat, Barrankillaren kaia izatea besterik ez zuana. Andik Barrankillara 18 kilometro. Puerto Colombia ori itxasoaren sarrera batean dago. Sarrera biribilla. Iru kilometro bañan geiagoko

zabalera. Lurretik itxasora kilometro bat bañan
geiagoko zubi bat, gañean tren zula, zijoazen
ontzik ustutzeko.

—Emen gera, esan zion Zubiburuk Uriaurreri.

—Bai, emen; nun gauden ezer asko ez dakigu
ta.

Beste iru lagunak, bata ernai lengusuk nun agertuko ote ziran eta besteak aberriko lurreri begira, mutuk zeuden.

Nolako gozotasuna izan bear dun aspaldiñ ez ikusitako aberriaren lurra berriro ikustea! Aundia edo txikia, aberatsa edo beartsua, ona edo txarra... aberria. Jaiotetxea, begik alaitzeko besterik ez bezelakoa, ongiena ezagutzen ditugun eta ezagutzen gaituzten adixkideak, maitasunak, gorantzik, lenengo gure begik ikusitakoa, urruntasunak eta denborak itzaltzen ez duena... Argatik Eduardo ta Rafael zoraturik zeuden. Ogei etxe aien ondorean zer ikusten zuten ba?; lur orizka?; arte antzeko txaga ta sastrakak?; sasik; kaskardik suge gaiztoeenetakoak gordetzen dituztenak? Bai, zera! Aberria, ta Batezere aberri usaia.

Bostak elkarrekin lurreratu ziran. Pozgarria izan zan ermutarraren lengusua zai egotea. Ondartzan zegon bar batean garardoa edan zuten, eta bai pozik bero gogor artan. Antxe

antolatu zuten jarraipena, Eduardo ta Rafaelek Cartagenarako ta beste biak Bogotarako. Lenengoak autobusean, besteak ontzin Magdalenaren barrena, al zuten beziñ len, jan bear ba zuen irabazten asi bearra zeukaten da. Zori onez arratsalde artan bertan aterako zan «Pichincha» izena zun ontzia eta ez zitzaien gelditu betarik bazkaldu ta ermutarren sendia ikusi bestetarako.

Parragarria izan zan Uriaurreri ostatun gertatua. Busti nai zula ta ortarako gelatxoa eskatu zun. Eman ziotenean pixkanbat arritu zan, bai, krixtalezko apaltxo baten gañean ainbeste ukendu, usai gozo, margo ta gañerakoak ikusi zitu-nean. Alakorik batean emakume bat ate joka:

—Nor dago barrenen? Zer egiten du? Atera bereala nere senarrari ots egitea nai ez ba dezu.

Uriaurrek erantzun zion:

—Gauza ederra ikusi nai dezu, etxekoandre. Nagon bezela eziñ atera neike. Barkatu, bañan legortu eta jaztean aterako naiz.

Gero jantokin ikusi zun emakume gaixo ura zarra zala, eta bere senarra errena, bi makuluren gañean zebillena, ez bera bañan gaztegoa.

Arratsaldeko lauretan sartu ziran «Pichincha»-ra. Ermutarrek lagundu zioten. Aien agurrarekin batean galdu zuten aberri kutsua. Orduntxe iruditu zitzaioten Euzkadi urrutitxo zegola.

Illunabarrean irten ziran. Ontziaren baporeak egiten zun txas!, txas!, txas!-ek lagunduko zioten uts egin gabe beste bost egunean. Gelak txikik. Ez zemaikien gauza aundirik, ez, bañan kutxa ta maletatxo erdiuts aiek naiko ziran bi gelatako lasaitasuna galtzeko. Gelak alakoak! Metro terdi zabalean, bi luzean eta beste bi goitik berara. Burnizko oiak motx xamarrak ankaluze aientzat. Eskumusuk garbitzeko txarro bat urarekin eta kaiku bat. Aizea nastutzeko tximixta indarrez zebillen tresnatxo bat. Atearen gañean leiotxoa, ibai aldera bestea. Biek eltxoak ez sartzeko sare zantzita. Bigarren mallako bizitzan zijoazen. Bizitza artan, ontziaren bi aldetara gelak eta erdin jantokia. Atzekoaldean garbitasunerako tokia, ur arrearekin garbitu nai zuenarentzat. Aurrekoaldean alkik, bere aietan etzanda ibai, basamortu ta mendik ikusteko.

Illundu zun. Ezer ez zan ikusten ontzitik kanpora. Apaltzera biltzeko ezkillak jo zuten, eta maiera inguratu ziran. Dena arrigarria: lagunak, janaria, bi motots luzeko neskame origorri zarbat... Andonik eta Anderrek aurrekoaldean zeukaten igali aundi bati begiratzen zioten, ikutu gabe.

—Ez al zaizue gustatzen?, galdetu zioten neskameak.

—Ez dakigu, oraindano ez genduan ikusi ta.

—Papaia izena du. Urdallerako oso ona ta gozoa da.

Ala zan. Andik aurrera gogoz jaten zuten. Ez ain gogoz gañerakoak. Zancocho, eltzekaria zan; ura alakoa; yuka, arrakatxa, lursagarra, usaidun belarrak eta aragi puskatxar bat. Gero arrautza prejituk arrozarekin, ia eziñ janekoak, ezagutzen ez zuten koipe batekin egiñak ziralako; gaizki ebakitako aragia ta arekipe izeneko goxoa.

Lenbailen jeiki eta aurreko alkitara joan ziran eltxo sailak ikusiko zituelakoan. Barrankillan ziotenez, an ziran anopheles izenekoak, malaria itxasten dutenak, stegomia fasciata, fiebre amarilla sortzen dutenak, jejen izena duten txiki txiki

goikarri batzuek, besteak beltzak, odolez betetzearan gorri antzekoak jartzen diranak. Bildurra, beti gertatzen dana, egia izango zana bañan aundigoa. Bide guztin ia ez zuten eltxorik ikusi.

Urrengo goizean neskameak esnatu zitun argitxintan «tinto» eskañiaz. Goizetik ardoarekin ez zuten asi nai eta ezetz esan zioten. Gero jakin zuten «tinto» akeita beltzari esaten ziotela. Jeiki ta aurreko alkietara joan ziran. Uraxe bai gauza ikusgarria. Magdalena ibaia, toki batzuetan kilometro bat zabalekoa, ur motel arrea, ez bere erritan utzi zituzten erreka txixtor dantzarik bezelakoa. Ibai ertzean aldizka aldizka egazti ankaluze batzuek, garzak edo, zurik eta auts kolorekoak, arraia jateko egokiera noiz izango zuen zai, atea nunai; luritoak erruz beti binaka; arrosa koloreko egazti aundi bat, lepo luzea, egoak geldirik, ibaiaren alde batetik bestera tximixtak egiñean. Dena ikusgarria. Basamortu illun ikaragarrik kilometrotan eta kilometrotan besterik ikusten ez zala bukaerarik gabeko zelai artan. Basamortuaren barrenen, esaten zuenez, putzu zabalak, eta an kaimanak, suge aundik urean gordeta aberen bat ura edatera inguratu

arte, orduan kokotzetik eldu ta aberea edozein dala oñak lokatzetik eziñ azkatuz azkenean uraren barrura ito eta gero legorrean jan. Putzu ertz askotan manzanillo izena dun zugaitza, puzoni aundikoa, eurite aundinetan putzuko ura gañezka Magdalenara dijoanean ibaia bera puzonitzen duna kilometro bat bidean arrai guztia galtzerano.

—Zer esango ote lueke goiazarrak au ikusi ezkerok?, zion Anderrek.

—Aizkora gogoratuko litzaieke. Aiek ez dakite basamortu ontan bidea irikitzeo aizkora bañan matxetea ohea dala, aizkora besterik ez dute ezagutzen eta. Orratik, Brasilen erdi erdin dagon erri batek Goiaz izena du ta esan leike goiazarren batek asiko zuala ta aizkoraz sartuko zala.

—Bai, ta ura nor zan iñork ez daki. Konkixadorea izan ba zan denak jakingo zuten zein zan eta nolako neketan ibillia zan: nola alde guztitatik eltxo, suge ta katamotzak sortzen zitzaizkan; nolako sukarra izan zuan; nola bere lagunak bidetan galtzen joan ziran; nola iltzen ziran zaldikin egiten zituzten zagik edateko ura gordetze-

ko; nola askotan gerrirañoko uretan sartzen ziran... eta abar. Dana dala, basamortuko bakar-tasun ori, illunpea, ixiltasuna ez dira neretzat.

—Orratik bein sartu ta oitutzen danak ez emen du geiago ateratzeko gogorik izaten.

—Ala izango da, bañan nai duenarentzat. Nere gogokoa gizonek apaindutako lurra da.

Karnakeko elizak, Esfinjek eta Cheopsen piramideak izango lueke au jantzi ederrena, eta irurak beste antzeko batzuekin margo onenak basamortua alaitzeko. Dagon bezela, ezer ez. Buruz bakoitzak igarri nai duana. Baserritarrak esango lueken bezela: elusiok.

Urrengo egunean iritxi ziran Zambranora. Ordu laurden batez aurretik «Pichincha»-ren txixtuak ots egin zioten zambranotarreri ba zijo-ala. Ontzia lurrera inguratu zanean, an ikusi zuten beste gauza berri bat geiago: ol zabal bat ontzitik lurrera jarri ta andik sartu zan mutill koskor talde bat, pardel, kutxa, ta ara zijoazenak zemaizkien trasteak jasotzera. Lurrean, lenengo errenkadan, neska mutillak, jantzi geiegi gabe, luritoak, egazti politak eta tximuk saltzen. Tartetan emakume batzuk, almojobanaz eta iukarekin

egindako ogia zeramateia. Atzen, gañerako jendea, Point-a-Pitren bezelaxe ontzia ikustera zijoana. Gero, ibaitik amabost metrora, lenengo etxeak; erdin bat bi bizitzakoa, aldamenetan bat urdiña, bestea gorria eta beste amaika orizkak, denak bizitza bakarrekoak. Lenengoak ez gañerako guztik tellatu ordeaz eneak zeuzkaten (enea ori ibai artako belar luze gogor bat da). Atzerago, erria izan bear zun. Ingurutan basamortua. Ibaia-
ren beste aldean basamortua. Ander eta Andoni legorrera joan ziran nagik ateratzeko; ez ibiltzeagatik, bero izugarri artan zailla zan da. Andik ikusi zuten patxaran «Pichincha», bere bi tximinik ezker eskubitan zitula eta atzekoalden olzabal aundikiko kurpilla urari bultzeaz ontzia ibiltzeko. Irugarren bizitzan, lenengo mallakoan, gelak erdin zeuden, eta ez bigarreanean bezela aldamenetan. Beian, irugarren bizitza, uretik metro batera; ura bezelako zikulusaltsarik ez da: an makina, an sukaldea, an bertako langilleak eta an irugarren mallako jendea. Naiz egunez eta naiz gabez an ikusten zan jendea amaketan etzanda lo, eltxoen bildur aundirik gabe. Antxe, bizitza artan, agiri ziran bi indio ruana luze

batzuekin (kapusai antzekoak) jantzita, ille beltz, gogor, zutia, lepotik pitxiak zintzilika zituztela; an agiri zan ama bat bere bost aurrekin baxtar batean, an ume beltz bat bere aitaren belaunetan exerita, noizean bein «mojiko» esanez, aitak sudur motx artara inguratzen ziran eltxoak uxatzeko; langilleak kai lanean eta kapitana, patxarako nagusia, dena ikusten eta zer egin bear zan esaten, edo agintzen.

«Pichincha»-ren ziztuak adierazi zioten ba zijoala, eta ala ontziratu ziran aurrekoaldeko alkitan exeritzeko.

—Bogotan zer egin bear degun erabakitzen asi bearko degu orratik.

—Bai, bañan nolakoa dan eta zertsu egin leiken ikusi arte... Oraindaño ikusi ditugunak bezelakoa ez al da izango. Eduardo eta Rafaelek ziotenez: «Bogotá es culta y se pasa sabroso».

—Nolanai dala arkitektoaren baten lantegin sartu bearko det nik laguntzalle bezela. Sartu beñepein.

—Nik ori bera egin nezake legegizonen batekin, bañan txanpon batzuek azkar irabazteko

izparringietan idaztea errezago izango det. Ikusten al dezu?: Nola ekarri bear nuan Bixenta?

—Ezaguera aundiko mirabea.

—Ez parrik egin, ala da ta.

—Nola par egingo det ba, zuk Mirenengatik berdiñ egiten dezula uste bearko nuke ta?

—Esango dizut ba bere ezagueraren itxurazko beste gauza bat. Azkenengo zenbakitan izparringik agertzen zuten laterri bateko nagusia neskatxa batekin dantzan. Neskatxaren bizkarra larru gorri eta agurean eskuzabala neskatxaren bizkarrean. Eta ala zion: «Noiz parragarri gabil-tzan ez degu beñere ezagutuko. Beti geok lasaitzeko diñako arrazoi koxkorren bat sortzen degu, eta tira. Gañera, langilleen gosea kentzeko ez zait iruditzen biderik onena».

—Zoriontsua zu, maite dezun neskatxaren itzak gogoratu lezazkitzukea.

Ontziko beste jendearekin itzik egin gabe igaro zituzten Barraca, petrolio ateratzen dan erria eta beste koskor batzuek. Bañan «Pichincha»-n jendea janda bizi zan eta Barrankillan artutako aragia bukatu zitzaiotenean, lur ertze-raño joan eta bei bat jaso zuten. Eta errez. Itxi-

tura batean zazpi zortzi zeuden ortarako; beste-
la ontziratzerik ez zegon eta mutill bat jetxi zan
soka luze bat eskuetan zuala; sokari mutur
batean txilibixta egin, beste muturra andik pasa,
ordun ura beiaren adarretara bota ta beia lotua;
soka muturra ontzikoeri eman zioten, beia ibai-
raño arrastaka eraman ere bai eta an jaso zuten
uretik ontzira ezer askotarako gauza ez zala.
Berriro aragia ba zan.

Baztar aietan ibilli ez danak beroa zer dan ez
daki. Tropikoan itxasotik zenbat eta bertarago
bero aundiagoa izaten da, bañan naiz ibaian
gora lareun metro igo, mendi tartean sartzean,
aize zantzurik gabe, itxas ertzean bañan berogo.
Ito bearrekoa. Arriturik zeuden ontzia zemaikien
gizonak zeñen egoki lana egiten zuten ikusita.
Magdalenan, ainbeste lur daraman ibai ortan,
ondartzak egun batetik bestera aldatzen dira,
eta nun dauden ez da ikusten. Ontzirentzat bide
jakiñik ez dago. Sumatu egin bear. Alakorik
batean, «Pichincha»-ren ondo zabala ondartz
baten gañean oieratuta gelditu zan. Orduan txa-
lopa batean lau gizonek kable luze bat eraman
zuten legorreraño, ura zugaitz aundi bati lotu ta

kabrestantez atera zuen bere oietik. Lau oñeko ondoa bear eta ura billatzen lanak.

Azkenetako egun batean arritu ziran: etzanda zegon mugarro baten gañean bi tortuga, eta atzetik kaiman bat, besteak arrautzak noiz ipiñiko zituen zai. Geroxelago, ibai erdiko ondartzat aundi batean, bost metro luzeran izango zitun kaiman bat, aoa zabal zabalik, elbiz eta eltxoz noiz beteko zitzaion zai, aoa itxi ta motel motel ureratu zan.

Europatik toki oietara joatean aldiero agertzen dira gauza ikusgarrik. Ander eta Andonik ez zuten asko uste gau artan bertan ikusi bear zutena. Gau illuna zan; kapitanak eta pilotoak ez zuten ausardirik izan illunpe artan jarraitzeko; ala, ontzia ur ertzera eramane zuten eta an egon zan gau guztin kable batez zugaitz bati lotuta. Ontziak lurra ez zun ikutzen; ontzitik lurrera kablea beste lokarririk ez zegon; eta ala ere bide bakar artatik armiarma txaxtarrak sartu ziran argitara millaka. Ixtanpatean ontzia armiarmaz josia agertu zan.

Seigarren egunean iritxi ziran Puerto Lievanora. Andik amabi ordun igoko ziran Bogotara,

naiz trenez naiz berebillez. Goizeko zortzik zira-
la, berebillez ekin zuten menditan gora, mendi-
tzar izugarri aien barrena. Lenbizi dena orlegi
biziz jantzia, zugaitzak beti ostoz beteak dauden
tokik, beti udara balitz bezela; gorago, kanpoa
illuntzen, utzitako bezelakoak ez ziran ango lan-
dareak; azken aldera, garoa, eukaliptus, piñarik,
soro soillen bat edo beste ta otza. Egun berean
izan zituzten bero izugarrina ta otzik zitalena.
Ala iritxi ziran La Sabanara, 2.640 metro itxasoa
bañan gorago dagon zelai aundia. Eta an, zelai
arren baztarrean, Bogota, bere argik ortze garbi
dagoneko izarrak ziruditela.

Ezin esan leike aize medar artan, otzak, erri-
koskor bat izan balitz bezelako ixilltasunean, bi
lagunen biotzak zer zioten. Ez ziran alai joan eta
ez zeuden alaiago. Bat, kutxa ta maletakin gelditu
zan kale erdin, bestea ostatu eske zijoan
bitartean. lenengoa, betea. Andik, beste batera,
eta berdiñ. Azkenean txoper batek eraman zitun
izen aundiko ostatu txar batera.

Urrengo goizean etxetik ateratzeakoan ger-
tatu zitzaizoten gauza xelebrea: Nagusiaren orde-
koak galdetu zioten: «Mandan algo los Docto-

res?». Batak besteari begiratu ta esan zuten: «To!, ustez ixillik getozen eta norbaitek itz egin-
du emen». Gero, atetan, kale garbitzalle batek
besteari: «Pues sí, Doctor; los conservadores
están sobaos». «Alare, esan zuten, kale garbitza-
lleanak uste dute».

Izparringi bat erosi zuten. Españako berririk
ez. «Au dek gurea», esan zuten, eta ala arratsal-
dean joan zan Andoni izparringiko nagusiarenga-
na.

—Nagusi jauna?

—Ni naiz.

—Ara ba. Ni ola ta ola nator. Iñor ez det eza-
gutzen, dirurik ez det, jan bear eta izparringi
ontan lanik izango ote nuken jakitera etorri naiz.

—Zer lan?

—Idazten.

—Zer gaietan?

—Edozein, politika ez dan bitartean.

—Noiz asita?

—Gaur bertan.

—Ia ba; nai dezunean lenengo idazkia ekarri.

Eta ala, aldi batean izparringi artan idatzi
zun. Bertakoak idazle obeak eta ortan aberastu-

tzerik ez zegon. Gañerakoan nagusi arrek Jainkoak dakin loxintxak egin zizkan.

Ander ere arkitekto batekin oso ondo lanean asi zan.

Sendi on baten etxean bizitzen jarri ziran. Iñork bekaitz izateko zorin ez, bañan ezta errukarri ere. Bogota zarrean, apaiza ta ezkillu ugari; gure lagunak erritan ere ba ziran, bañan angoak langillegoak ziruditen. Bañan itxura ori alde guztietan aldatzen ari da. Erri aundik aldin aundigoak dira, jendea mordoan eziñ sarturik bizi balitz bezela, zabaltzen, zabaltzen dijoaz, eta alde berri oietan ez apaizik eta ez ezkillarik ez da ikusten; gutxi. Bogota berrin orixe gertatzen zan. Etxeekin bezelaxe: alde zarrekoak, bizitza bana-koak, eskalleak ez igotzeagatik an asnasa artzea zailla dalako, eta berrin bi ta iru ta amarreraño-koak bere aszensoreak dituztela. Jakiña dago Andoni ta Ander alde zarrean bizi zirala.

Artan, Zubibururi bere arrebaren eskutitza etorri zitzaion. Itun gelditu zan. Uriaurrek igarri zion naigabea zula.

—Zer dezu?, galdetu zion.

—Zer deten? Begira zaiozu nere arrebak zer esaten diran, eta eskutitza eman zion.

Uriaurrek laixter ikusi zun okerra. Mirentxo Orreaga irakurri ordurako. Arrebak zionez, «...joan dan asteen etxeaurreko lekaimetara sartu zan. Lekaimeak pozik artu zuten, bañan erri guztin ori nolatan gertatu ote dan besterik ez dabill. Neskaxa on onetakoa, polita, guztik maite zuena ta batbatean monja. Gaixoak izango zun zerbait biotzean gordeta».

—Zure itunak ez nau arritzen. Izatekoa da. An ziñala gertatzea okerragoa izango zan. Urrutin gauzak lenago aztutzen dira.

—Ni an izan banitz ez zan gertatuko. Gaixoa!

—Orain aztu beste zer egiñik ez dago. Apika ura dagon tokin egoteak asko lagunduko dizu.

—Ala izango da bañan naigo nuke emen balegoke. Gaixoa!

Lasaitzeko bide bat bakarrik ikusi zuan: arrebari erantzutea. Ogeitalau ordu lorik gabe egongo zan eskutitz ura egiten. Eziñ utzi. Esaten zizkan gauza guztik onoko onen ondorean zebiltzan: «Bai; biotzean gordeta zerbait ba zun. Ni niñun, nik bera deten bezela. Onezkero alperrik.

Mirentxo gaixoa... zergatik itxo egin ez dit ba!
Geiago itzuliko ez naizela usteko zun. Itxuraz
pentsatua zegon: lenengo lantegia ipiñi bear
nualako eta orain au, beregandik urrundu nai
banu bezela. Zer egin bear zuan ba? Gaixoa!».

Bi malko mardul ixuri zitzaizkan paperera.
Bere arrebak ikustean zer gertatu zan ikasteko
diñakoak.

Bogota paketsu artan ongi bizi ziran. Zalaparta aundi gabeko erria. Jende ona. Aundia izan eta denetik zan. Gure lagunak aberkide pixka batzuek ere bai. Janarira bereala oitu ziran. Jakiña, restaurantetan berriz European bezelaxe. Asieran ainbeste oñetako garbitzalle, izparringi ta loteri saltzalle ikusirik, nork lana egiten ote zun esaten zioten beren buruiri. Gero ikusi zuten langilleak ere ba zirala. Dena motela, dena illa, ori bai, ain goien besterik eziñ izan leikelako. Arkakosoak jausirik ez, astoak ostikorik ez, atxurrean ari zana izarditzeko bildurrik gabe... erri artan orixe da ezagutzen ez dan itza: izardia. Oso lagun onak. Igandetan zinera. Aldiz aldiz txokolatea ere bai... Pozik zeuden bai tokiz eta bai izaeraz. Anderren arrebaren eskutitzak nastu ez bazitun, erbesten izateko ondo.

Akats bat sortu zitzaion Uriaurrei. Lekaide batek euzkotarren aurka ez bearrak idatzi zituan. Lagun baten bidez, Uriaurrek adierazi zion artan ez jarraitzeko; goitxoan dagonak eror-

tzean kaskarreko aundina artzen dula ta itzak neurtzeko. Lekaideak, sutu ta aundigoak esan zitun. Uriaurrek ba zekin apalena bear lukenari deabrua lenago burura igotzen zaiola, eta ez zan arritu. Joan zan izparringiko nagusiarengana eta esan zion lekaidearen aurka asi bearra zeukala. Berari, nagusiari, asko zor zion bidez, eskeintzen zizkiola idaztera zijoanak; bañan gaizki iruditzen ezkerotan beste batera joango zala. Nagusiak, oso egoki, eskerrak eman zizkan, eta lekaidearen aurkakoa bere politikaren aurkakoa zala esanaz, ezetzkoa eman zion; bañan eskertuko ziola lengo gaietan bertan jarraitzea. Ordun beste izparringi batera joan zan.

Izparringi berrin iñor ezagutzen ez zuan. Nagusiarengatik galdera egin zun. Eraman zuten nagusi berriarengana.

Maiaren beste aldean exerita zegon. Itxura obeko gizonik ez. Berrogei urtera ez zan irixten. Bere antiajun atzetik beti parrirudi alai batean begiratzen zuna. Andonik denak esan zizkan. Nagusiak begik itxi gabe entzun ere bai. Bukatu zunean, jeiki ta ala mintzatu zan:

—Zure ibillik pausorik pauso jarraitu ditugu. Etsaietan sartu ziñan. Ez al dakizu lagunak etxe ontan dauzkatzula?; izparringia goitik bera zure mendean daukazula? Noiz asi nai dezu?

—Oraintxe, esan zion pozez lertu bearrean.

Eta ala asi zan jendeak ikasten zituan berrik emanaz. Andik aurrera, gizon ura adixkiderik onena. Alako biotza zuan! Beste alde batera berriz lagunak erruz sortu zitzaizkan.

Esan bezela, Anderren arrebaren eskutitzak nastu zitun. Ander asi zan Bogotan eziñ bizi zala ta basamortura joateko gogoia zeukala. Uriaurre berriz, Bixentari ots egin bear ziola. Alakorik batean Bogotan agertu zan Andoniren adixkide aberarts bat, bere errikoa, itzulean bere olara zijoana. Andonik ez zun uts egin: joan zitzaion eta eskatu zion Bixentaren etxera agertzeko eta bere izenean esateko lengoa ba zan etortzeko Andonirengana; eziñ etsirik, Bixenta beste gauzarik buruan ez zeukala; ezkontzeko bear ziran paperak bientzat ekartzeko. Bere adixkideari gauz oiek esan zizkanean, gauza aundi bat egin balu bezela, lasai gelditu zan. Ez zitzaion irudi-

tzen Bixentak ezetik esango zuanik. An ikusten zuan bere besoetan.

Bero aldia joan eta zentzuz pentsatzen zua-nean bildurra sartzen zitzaion: «Neska gaixo ori ekarri; neri edozein gauza gertatzen ba zait, zer egin bear du erbesten bere etxetik ain urruti? Eta gañera, ongi izanda ere, geiago irabazten ez dean bitartean nola bizi bear degu?». Ara, alako-tan damutzen zitzaion etortzeko esana: eziñ eto-ri zeikiala jakitea naiago zun. Bañan ondorean, betirako galtzen zuala ustean bakarrik, eretzeko zorin jartzen zan. Bere adixkidearekin itz egin zuan berriro, eta Zubibururi esan zion:

—Aizu: egin det.

—Zer gero?

—Nere erriko adixkide bat orain dijoa bertara eta esan diot Bixentari bereala datorrela esate-ko.

—Ondo egiña. Naigo nuke ortan ba negoke.

—Ez dakit ba. Andik onera okerrago ibiltzeko ekartzearekin naigabea sortzen zait. Batetik, ura gabe eziñ etsi; bestetik, ekarri ta neketan ikus-tea...

—Ez zaitezela ustela izan. Lenbizi ekarri zazu. Jainkoa guztiri begira dago eta ez zaitu maldan bera amilduko: ekarri, ekarri. Ori da gauza. Mirentxo dagon tokitik ekarri al banezake, itxu-itxun ekarriko nuke. Eziñean arkitzen naizelako ba noa. Basamortura joan bear det.

—Ez zazula txorakeririk egin. Basamortuan zer egin bear dezu?

—Apika arkaitzetik urrea atera.

—Gizona, utzi zaiozu urre orri eta Bixenta etortzen danean irurok elkarrekin ederki biziko gera.

—Ez, Andoni, ez; Bixenta ikustea izango litzake neretzat gaitzik aundiena. Mirentxo beñere ez aztutzeko onena. Eta aztutzen ez ba zait, erotuko naiz.

Etxetik atera ezkeroz, alde guztietan gaizki izan oi da. Ori nola leiken orrela bizitzean jakiten da. Jende tartean, adixkide onen tartean ibilli, ta inguruk utsak; janari, onenak, mokau goxo guztik bildu, ta alakoxe xaltxa edo beti zerbait palta. Kanpo ederrenak ikusi, ta naiz lili ederrez jantzik egon, mutuk, biotzari ezer esaten ez diotenak. Dena akatsez betea; dena txarra... Argatik bizi

ziran sendiarenean aspertu ziran. Ordun, etxe txiki batean, sukaldezai izeneko emakume zar batekin jarri ziran. Atso gaixo ura, zarra, ergela, errena, ez sukaldezai ta ez ezer zan. Sukalde zaintza bi mutillak egin bear izaten zuten. Artan, Uriaurre ziara gaixotu zan. Esteak garbitzeko zerbait eman zioten. Ustu bear ba, ta ortarako gelatxora, patioan beste aldera, euritan joan zan. Elizakoak ekarri zizkaten. Gogorra zan nunbait eta iraun zun. Sendatu zan. Egun batzuek beranduago, berak eziñ antz eman zion nolatan ill ez zan. Ez zitzaion asko ajolarik, ez. Bixentaren erantzupena jakin gabe joateak samintzen zun. Orrek eta bere ama geiago eziñ ikusiak. Beste guztiarengatik ez zitzaion ajolarik.

Oia oztutzen asi zanean, Bixenta beraren eskutitza etorri zitzaion. Aula zegon eta irikitzeak bildur ematen zion. «Zer ote dio. Senargaien bat ote du? Etxekoak utziko ote diote onen urrun nola biziko dan ez dakin tokira etortzen?». Ala asi zan motel motel estalkia irikitzen. Asi bai ta eziñ jarraitu. Ortan zegoala, biotzaren tapatekoak turtukiarenak ziruditela, Ander sartu zan:

—Begira zaiozu. Bixentaren eskutitza. Iriki-tzeko gauza ez naiz. Tori...

Anderrek artu zun, zabaldu eta bereala esan zion:

—Ba dator.

—E?

—Ba datorrela.

Gizajoa an asi zan jautsika, algaraz, Anderri besarkadak emanaz.

—Ia, ia, ekatzu. Entzun zazu: «Andoni maitea: Zertan joan zihan bakarrik? Zertan utzi niñuzun anima erratua bezela, biotzean eta buruan zu besterik ez nuala? Joango naiz. Bai, noski. Al dean beziñ azkar. Paperak biltzea ez da erreza izango, bañan nola edo ala uste det antolatuko dituala. Eta eziñ ba det berriz, berdiñ, igesi joango naiz eta. Urte bi oiek luzetxo joan zaizkit. Bañan esan bearra daukaten zerbait esatea zuk ez dezu naiko. Ez da kaltegarri paperen denbora atzerapen izatea, denak jakiñ eta oldoztu dezazun. Orduan erabakiko dezu. Ara zer dan: Bakarrik gelditu nitzanean (zu joan ezkeror bakarrik noski) zu geiago ikusteko itxaropenik gabe, gudan etorri zan kapitan bati geitxo xinixtu nion

maite niñuala. Irrixtatu giñan eta gero ezkontze-rik ez. Gizon gaizto ura ezkondua zan. Ondorean, ia urte bete daukan alaba jaio zitzaidan, eta nere onekin bizi naiz iñola eziñ utzirik. Ara itz gutxietan nere lotsa ta nere okerra erakutsi. Jakiñaz gañera nai ba dezu, uste det igari ere joango nitzakela zurekin bizitzeagatik. Ezetz esaten ba dirazu, nere burua betirako galdua jotzen det, eta nere aurra zaindu besterik ez daukat. Agintzen dezuna agintzen dezula, bere gogoia agertu dizu benetan maite zaitun Bixentak.

Aldi batean Andoni ixillik gelditu zan.

—Ikus al dezu?, esan zion Anderri.

—Ez arritu. Guda guztien isatsa ori izan oi da.

Orrelako kapitan mingainzuri bati, Batezere euskalduna ba da, gauza erreza da gezur ta abargure neskatxa onetako bat itxutzea. Gañera, gizonak ezkontza ez du emakumeak bezela ikusten; emakumea osorik ezkontzara joaten da ta gizona berriz lasaixeago bizitzen ikusiko dezu. Neretzat Bixenta len beziñ ona da. Jarri zaite bere tokin eta esan zaidazu zer egingo zenduan.

—Bañan, biok xinixmen berdiñak giñuzen eta ez dakigu nundik etorri zan kapitan berritsu mingainluze batekin!...

—Ori ala da, bañan ez dezu beñere jakingo besteak ongi ala gaizki egiten duten bere tokin jartzen ez ba zera.

—Gañera, neoni ez naiz zuzenagoa. Besteren obenak errezegi ikusten ditugu eta gureak ezkuntun gorde.... Bereala etortzeko esan bear diot. Bakarrik edo berarekin, nexkarekin edo nexkarik gabe berdiñ izango gera. Jainkoa lagun.

Eta ala, Bixentak adierazten zion zuzenbidera, idatzi zion: «Zatoz. Neretzat len bañan gutxi-go ez zera. Beste alde batera berriz, biren ordez iru izatea ez da kaltegarri. Zure alaba nerea izango da ta biok erakutsiko diogu...».

Andonik erabaki ori artu zuanarekin batean, Anderrek basamortura joatea erabaki zuan. Ango lanetarako beste txanpon batzuek irabazi, zegoan tokin lanak bukatuk utzi...

An zegon Bogota bere alaitasunik aundinean. Pazkotako jaiak elizetan eta zezenak eta antzokik eta denak lana ugari izaten zuten egun aietan. Illunabarretan jendea, Batezere calle Real-en, gizonak bizkarrak ormeri eantsita («maqueteando» esaten dute berak) eta emakumeak bere apaintasunak gizoneri erakusten. Orduntxe pixkabat esnatu zan. Eguzki ederrarekin, betiko otzantza ez zan kaltegarri. Andoni ta Ander bere kezka guztikin lagunetara atera ziran. «Tinto» batzuekin, «perico» (kape-esnea) besteekin artuaz (an amar, amalau errez artzen dira, bate-tik katillu txikik diralako eta besterik kapea aula dalako) amaika berriketa egin zuten. Anderrek laguneri galdetzen zioten ia urrea nola ateratzen zan. Ala jakin zuan bi eratan azaltzen zala: arkaitz biziaren barrenen, arkaitza bera balitz bezela, edo zillar, platino, zink eta plomoaren erdoiakin nastuta, eta ibai baztarretako ondartzetan ondar tartean. Lenengoetan urre utsa, «pepita» esaten diotena, gutxietan; besteetan

ondartzetan, beti. Arkaitzetik ateratzea oso zaila; tresna aundik, mirabe asko eta dirua erruz bearrekoa; tokik ba dira ibillin ibillin kilometro bat bidean lurpera sartu diranak; andik kanpora atera ta puskatu; gero txeeu; ondorean *acidocianhídri*-ko dala edo besteak dirala, erdoi guztik aldameneratu, urre soilla azaldu dedin; eta auts ura lurrezko eltzetan urtu urre mardula egiteko. Bigarrena errezagoa: antziñan indioak egiten zutena; naiz bat naiz eun gizonak egin lezateken lana: ondarrak baitu. Ondartza aundik diranean, makina aundik bear metro batzuek bidean ondora goldetzeko. Ibai txikigoetan ez. Bañan indioetatik asita txiki aiek miatuenak izan. Anderrek zer asmo ote zuan? Injeniero bai zan eta berak zekian ongiena zer egin zezakean.

Uriaurre izparringin ondo zijoan, egunero lagun berri onak egiñaz. Ainbeste ezaguerarekin bururatu zitzaion zelulosa egitea, dirua errez bilduko zun itxura ba zeukan da. Aldiñ argigo ikusten zun alako ola batekin dirua erruz irabaziko zala. Bera beziñ langilleak ez zitun lagunak eta asmoa atzeratzen joan zitzaion. Gutxiena uste zuanean, jaun bat azaldu zitzaion dirua ba zeu-

kala esanaz eta nai zuanean ola nun eta nola egin bear zan oldozten asteko. Besterik nai al zuan? Oso urrun zegon lagun zar baten bidez ikasi zuan zelulosa nola egin leikian lastotik, tximixta indarrez gatza bi puska eginda, sortzen dan kloroa lasto aietatik igaroz. Lenengo lana olako nagusitza Anderri eskeintzea izan zuan, idazkik eta zenbakik beretzat utzita; bañan Ander aldiñ nastugoa zebillen eta basamortura joateko asmoa txantxetako ez zuala esan zion. Andonik illabete burun lurra eresia zeukan eta makinak eskatuk ere bai. Denbora aurrera zijoan, ormak gora zijoazen, eta usterik gutxienean Bixentaren kablea etorri zitzaion: «"Bretagne"-n iritxiko gera. Bixenta». Ederki! Makinak beste illabetean ez ziran etorriko, etxea egitea ez zan bere lana, eta Barrankillara joan zan astebetetz lenago Bixentari itxo egin eta bertan ezkontzeko asmoetan. Anderri galdetu zion ia aitajaun izango ote zan. Anderrek erantzun zion joateko gauza ez zala ta onena bere izenean ermutarra jartzea izango zuala. Ala, egazkarin sartu ta Barrankillara joan zan zapoa zirin bañan larrigo.

Barrankillan ermutarrak bakarrik ezagutzen zituan eta aietara joan zan gauzak egokiena nola egingo zitun ikasteko. Ain atsegiñak ziran bi gizon aiek eta bere emazteak, poz pozik euki zitun denean lagunduz. Ez nai bañan lenago, eguna iritxi zan. Ontziaren etxean esan zioten eguardin sartuko zala «Bretagne» Barrankillako kaiara. Bai, Uriaurre Puerto Colombian jetxi zan, bañan geroztik ontzik, Magdalenaren barrena, sei kilometro bidean, Barrankillaraño sartzen ziran. Goiz artan Andoni ba zijoan kaiara bestetarako, maukutsik eta lepokorik gabe, izardi patsetan. Bere kezkek txikik ez ziran: «Emakume ori ekarriazi dirat eta orain lanak. Bera bakarrik balitzake, utsa, bañan alabarekin, orain, urte batzuetan zaindaria bearko duan alaba. Eta norena ote da alaba ori? Ederki zio: Ni soldaduzkatik igesi eta neoni kapitan baten xaxiko alaba jasotzen. Dana dala, emendik aurrera nerea balitz bezela. Bañan kapitan berritsu ura ingurun zeukan bitartean ots egin ba nio etorriko ote zan? Auxen dek ba itxura gabeko gauzak oldoztea. Bixenta, maite, ziur etorriko zala jakin edo uste ortan bizi, bere obenak esan ondorean

pozik etorriko zala adierazi, ori jakiñik etortzeko esan eta orain kezka? Bai; oiek ala dituk, eta berak bere senditik ain urruti, etxean bañan oke-rrago bizitzeko, etsiko al du? Beti lokarri bat izango diagu: ume ori aingeru bat dek ta nik nerea bezela artu ta ezi ezkeru denentzat ongi».

Batean ibilli bestean exeri, orduk joan zitzaizkan ermutarrak etorri arte. Aiek bai garaiz. Urrutizkiñez jakin zuten ontziaren sarrera, ta kilometro batera inguratu zanerako an zeuden. Tximini bakarreko ontzi beltz arren barrunbean zetorren Uriaurren etorkizuna: zori ona edo zori txarra. Bertaratzen zijoala, saitsean agertu zan emakume bat aurra besoetan zuala. «Ura da», esan zioten laguneri. Berak ere laixter ezagutu zuan Andoni ta eskuakin agurtzen zuan. Uraxe bai itxoera zailla. Elkarri begira, Bixenta aurra musuz estalitzen, kaiara inguratu bitartean eziñ ezer esan, karraxika asi bear ez ba zuen. Bai aurra ta bai bera biziro apain jantzik. Ermutarrak zioten Bixenta emakume ederra zala. Noizbait, ez nai bañan lenago, ontzia aldamentzeratu zuten, Andoni jautsi batean igo zan eta Bixenta besarkatuz aurra besoetan artu zuan.

—Bixenta: betirako elkarrekin gaude.

—Bai, Andoni; eskerrak zeorri itzuli arte itxo egin ez dezula. Ixill aldi baten ondorean jarraitu zuan. Besoetan daukazun nere alabatxo ori eka-
rria barkatzen al dirazu?

—Barkatu? Au nerea da (Bixentari naigabea egin zitzaion). Etxekoak ongi utzi al dituzu?

—Denak ongi. Gurasoak zartxoak, bere ajeak ba dauzkate ta emendik aurrera ez dira obetogo izango. Denak pozik nere etorrerako poza ikusi zutenean.

—Ez al zizuen galdetu beti emen bizi bear al zenduan?

—Esan nien zure gogoia ta nerea itzultzea izango zala, bañan zurekin izan ezkeron ongi negola.

Ondorean, adixkideen sendietara agertu ta egun gutxietan antolatu zuten ezkontza. *Perpetua Socorro* izena dun elizan izan zan. Zilimoni aundirik gabe. Bidelagun egindako ermutarra aitajaun Anderren orde, eta bestearen emaztea amandre. Bixentaren poza ez zan naikoa aztua-
zitzeko bere egitazko ezkontza, lotsik gabekoa, ia ezkutun egiten zutela. Orretzek miñ pixkanbat

ematen zion. Gañerako gauzak ez: bere errin soñeko zuri itsas luze batekin ezkonduko zala, zein umek eramango zioten itsas ura, beregatik gaizki itz egin zuten lagunak ixildu bearra zeuka-tela, bazkari aundia... oiek guztik gutxi atseka-betzen zuten.

Bixenta Barrankillako beroak laixter aspertu zuan eta egazkariz Bogotara igo ziran. Bi ordu t'erdin, ibaiez gutxienaz bost egun pasa bea-rreran.

Andoniren topoa ikaragarria izan zan etxeko mai gañean Anderren txartela jaso ta irakurri zuanean. Itxura txarra emana zeukan Ander ongi etorria ematera ez agertzeari. Ara txartelak zer zion: «Ba noa, Andoni. Zuek etortzerako basamortuan izango naiz. Ez det nai nun nabillen iñork jakiterik. Aurrera atera ezkerro, azalduko naiz. Bitartean nere etxeko eskutitzeri al dezun beziñ egoki erantzun, oso egia esan gabe. Zuentzat, biotz biotzetik zori onak. Ongi bizi. Ander».

Bixentari dena arrigarria iruditzen zitzaion. Jendearen izaera, itz egiteko tankera ta Bateze-re ainbeste zilimoni edozein gauzetarako ibiltzea. Bizkarrezurra biguña zuela esaten zuan.

Mingaña leuna. Bañan ezagutu bearra zeukan
eta ezagutzen zuan jende ona zala.

—VIII—

Zubiburuk lekaide adixkideak ba zituan Uraba aldean eta aietara joan zan urre arazo orretan zerbait egin zitekian jakitera. Urabako mixio artan bi lekaide zeuden, bata Aita Deunoro eta bestea Aita Luis. Ikusi zutenean eziñ xinixtu zuten adixkide euzkotar bat baztar aietan agertzea.

—Bañan gizona, zer zabilta?

—Neonek al dakit.

—Guri laguntzera ez zera etorriko noski.

Gero, berriketarako naiko beta eziñ osaturik, elkarren berrik esan zituzten. Lekaide gizajo aien bizitza ere ba zan! Indio saill bat besterik ez zegon tokia. Jainkoaren legea erakustera bialituzten. Batezere umeeri eskola ta dotriña pixkat. Panamatik gertu, basamortuaren ertzean, iñorekin gogoz itz egiteko itxaropenik gabe, an bizi ziran bi lekaideak inpernua bañan berogoa dan baztar artan. Noizean bein itxasoraño joanaz, ez bero gutxigo izango zuelakotan, baizik ura ikusi ta pixkat bustitzeagatik. Bi gizon aiek

egindako lana ez zan nolanaikoa. Argatik Colom-
biako Gobernuak eskerrak eman zizkaten. Eda-
teko urak txarrak, eizak ematen zioten aragia
besterik ez, baratza gauzik ez, bertako zugaitzen
papaia, txirimoia ta alakoxe igalik... Bietako
batek sugeak iltzeko abillidade izugarria zun; bi
metro bañan geiago ez bazan beñepein ez zion
batek bakarrik iges egiten. Isatsetik eldu, batba-
tean astindu bat eman, ala bizkarrezurra austen
zion eta sugea geiago arrastatzeko gauza ez
zala. Erlejuk ba zituzten; ez gaingañekoak eta
aien mendean ez bizitzeko eguzkiak erakusten
zun erlejua egin zuten bizi ederki.

Aldiz aldiz agertzen zitzaioten Luis Gomez
Lekube, getxotarra, Polo izena zuan beltz bat eta
indio batzuen laguntzakin kontrabandoan zebi-
llena. Oso ezaguna zan Colombia guztin. «El cojo
Gómez» zuan izengoitia. Aren izaera ez zan bi
itzetan esatekoa. Panaman gauzak erosi, Atrato
izena dun ibaitik sartu ta Medellinera eramaten
zitan. Beranduxeago, Pazificoan Jurado ibaitik
sartu, kanoa ta kontrabandoa bizkarrean zuela
mendiari erain eta Panamako ertzean bertan
utzi. Anderrek galdetu zioten lekaideeri inguru

aietan urrerik ba ote zan. Ezetz esan zioten. Urrea ateratzekotan Antiokiko menditara edo andikan jexten ziran ibaietara joan beariko zuala. Zubiburuk orrenbeste ba zekin. Medellinen egun gutxietan jakin zituan, lekaidetara bañan lenago Bogotan irabazitako txanponak gordetzera joan zanean.

Bere lagun aiekin, Turbo-n zala, Dabeiba-n zala, eziñ beti jarraitu ta Antiokia-ra joateko prestatu zan.

Lekaideak, agur egiteko, jai aundi bat antolatu nai zioten, eta xinixtu ezin leiken prozesioa egin zuten inguruko umeekin. Negargurea sortzen zitzaion Anderri gizon aien lana ikusirik. Euzkadiko mendietatik Ameriketako basamortura etorri eta bertakoak eziñ bete dituzten lanak osatu. Gaztetan edurretan bizi izan ziranak, orain itotzeko zoriko berotasunean berdiñ.

Prozesioa ikusi zunean biotzak benetan dardard egin zion: ume indioak, orlegi auts kolorekoak, motxantzak, begik katuak bezelakoak, ille beltz zuti gogorrekoak, jantzik bañan geiago erantzik, Euzkadiko umeen doñuarekin abestuzten. Anderrek beñere egin ez zuana, umeen

errenkadan sartu ta ondo gogoz deadarka abes-
tutzen jarraitu zuan.

Prozesioa bukatzeko garaiean, atzekoaldetik gizon erren bat agertu zan, morroi beltza aldamenean zuela. Ginballa aundi baten pean, Jainkoak daki zenbat eguneko bizarra, galtzak lokarritz zankoari eantsita, makilla eskun eta ixkillua bizkarrean zemaizkin. Gizon arren begiratu zorrotza ikustea naiko «el cojo Gómez» izan bear zuala igarritzeko. Eliz aurrean, eliza esan bear Jauna zegon tokiari, gañerakoan itxurik ez zuan da, Ander joan zitzaion.

—Zuk euzkotarra izan bear dezu.

—Alaxe naiz. Zu ere bai ikusten deanez.

—Baita.

Lekaideak elizatik atera ziranean.

—Ara bi euzkotar, esan zun batek.

—Ez, lau, esan zuan errenak, zuek bi ta gu biok.

—Egia. Elkarren ezaguera egin dezute beraz?

—Bai; asko gutxi esanak gaude nortsu geran: jaun au Gomez Lekube ta ni Zubiburu.

—Apaltzeko garaia ez da urruti ta iruditzen ba zaizue aparimerienda bat egin genezaguke.

—Neretzat ez, esan zuan errenak. Larrixamar ibilli naiz eta gasolina pixkaten billa nator, zuek jakiten dezue nun jaso leiken da.

—Zer gertatu zaizu ba?

—Itz bietan esatekoa ez da. Orain gasolina jaso eta biar etorriko naiz.

—Tira ba.

Ala, esan zioten tokira joan zan bere morroia-
rekin Gobernuak bere egazkarin estuasun bate-
rako gasolina zeukan tokira. Beste laurak gizon
arren bizieratzaz mintzatzen gelditu ziran.

—Gizon orren biziera ere gogorra da, esan
zuan Aita Deunorok. Ara berak esan zidan beze-
laxe: Getxotarra, 1902ko otsaillean jaioa. Illaren
amalauean, uste deanez. Lau urte zituala ama ill
zitzaion. Aitak, bigarren ezkontzarekin egitazko
ugazama ekarri zion. Aitak Argentinara eraman
zitun. Andik Habanara. Gero berriz Getxora. Eta
errenak emezortzi urte zitun garaiean berriro
Habanara. Bakarrik, Colombiara etorri zan. Bere
lau urtetan sortu zitzaion belaun batean gaitza,
ixtar ezurrean gora joan zitzaiona, ta ala ixtar
zankoak legortu ta erren gelditu zan. Bogotara
joan, andik Medellinera, bietan iru etxe aundiren

mendean lana egin zun eta nagusik asko maite zuen lanean oso egokia zalako. Etxe aietako baten mendean zebilela, zapik, oialak eta sedak saltzen, Beneziara (Antiokiako erri koskor bat) iritxi zan eta leio batean ikusi zun denbora gutxi barru bere emazte izango zana, urreantzeko illea, biziro apaña, gero bi seme ta alaba eman-go zizkana. Besteen izenak ez dira aintzakotzaz artzekoak, bañan txikienena bai: Euzkadi. (Kadi-to esaten zioten). Kitora joan zan batean zitunak eta ez zitunak zaldi jokun galdu zitun. Ondorean itzuli eta Kali, Manizales eta Pereira-n lana egin zun. Alakorik batean, Antiokiatar batekin bazkundu ta Panamatik Medellinera seda asko sartu zituan bide zuzenetik. Garbi ikusi zuan aiek berak kontrabandoz eraman ezkerro irabazi aundia izango zuala. Baita egin ere. Sendia Panamara eraman zuan, orain dun morroi au beste batzuekin artu, ta Panamatik bi gasolinazko ontzietan, (Euzkadi ta Alkartasuna) Atrato-raño. Atrato ibaian sartu ta Panamako mugan arkitu zitun indio batzuek (Cuatro brazos, Pompilio ta Benedita) gauzak gordetzen zizkaten. Aiek gordetzen zizkaten bitartean, beste lau bost txande-

tan geiago ekarri eta Medellinerako egokierak antolatzen zitun, aurretik erresguardokoak edo Gobernuak kontrabandorik ez izateko ipiñitako gizonak nuntsu zebiltzan ongi jakinda. Erresguardoko oiek azkenengoan larri ibilli zuten. Atraton barrena zijoala, amar toneladako ontzi batean zortzi gizon agertu zitzaizkan bere ixkillu-kin su egiñaz, eta aien artean Rio Negroko alkatea. Polo-ri ametralladora utzi zion eta berak dinamita artu zuan. Dinamita puska bat ontzi ondora bota eta alako balantza egiñazi zion, ia iraultzeraño, erresguardokoak iges egin zuten larri bañan larrigo, bat bañan geiagok kaskarreko ederra artuta. Gezurra dirudi bañan ala gertatua izango da berak eta Polok esaten duenez, ez dira gizon arroxkoak eta. Medellinera sedak eramaten asi zan eta espetxean sartu zuten Atrato-ko gertaeran alkatea elbarritu zualako. Ordun erabaki zun Atlantiko utzi ta Pazifikotik astea. Juradoko erri koskorraren saitsa, Curiti, aukeratu zuan Colombiara gauzak sartzeko. Ura dena ondo ezaguna zuan, iankitarrerri bi erkalen mugak gordetzen lagundu zioten ezkerro, doixtarrrek eta Japondarrek andik kalte egingo zuten

bildurrez... Errenak zaintzen zituan inguru aiek. Juradora irixten zanean, andik gora igo, mendia-ri erain eta an gordeko zitun bere gauzak kutxa-rik onenean indioak eta sei morroi beltzek zainduaz.

—Eta zenbat denbora ibilli zan lan oietan?

—Denera seitik zazpi urtera. Pazifikotik ez luzaro bañan sendo egin zun. Puerto Ovaldia, Panaman, Intxausti izeneko euzkotar batekin bazkundu zan. Peñaprieta izeneko toki batetik ateratzen zan 80 toneladako ontzin (Euzkadi izendu zun) Snark izena zuan makina zalea ta beste sei beltzekin Pitalito-raño. Pitalito ori Panamako mugan bertan dago. Sarrera ain txarra, bertakoak ez due ausardirik izaten an sartzeko. Bañan errena itxasgizona izan eta baztar artan itxo egiten zuan Juradotik sartzeko egokiera izan arte. Azkenean kontrabandoa utzi ta zura lanean asi zan, iankitarrak kaobarekin aberastuko zala esan ziotenean. Eta or galduko da, auzoak etsai gogorrek sortu zaizka ta.

—Obe ez ote luke pake pakean etxeratzea?, galdetu zun Anderrek.

—Ez da geldirik egoteko jaioa ta ez du utziko.

—Kaxo, jaunak, iñork gutxiena uste zuanean esan zun errenak.

—Kaxo, gizon, erantzun zioten.

—Emen gerala.

—Zenbat denborarako?

—Gutxirako. Biar Coredon egon nai nuke, etzi Katzurupen sartzeko, Jurado bañan geroxeago. Beltz oiek nastuko naute orain zuzentzen ez ba ditut. Nere auzoak sarjento izandako lapur bat biali die laguntzeko ta biziroturik daude.

—Zertan laguntzeko?, galdetu zion Anderrek.

—Gauza luzetxea itzetik ortzera esateko. Medellingo ezagun batekin artu nun lenengo Juradon basamortu puska bat. Gero, beste batzuekin, Coredon bestea. Ez giñan ondo etortzen eta azkenean neonek neretzat irugarrena artu nuan Camparado-n, kaoba saill aundi batekin. Nere auzo oieri bertakoak ez die neri beziñ gogoz laguntzen, ori eziñ eraman due ta bereganatzeko sarjento ori biali dirate.

—Ez ote zenduke obe etxeratzea egindako txanponekin?

—Zergati, emen sudurretan orrenbeste diru ikusirik?... Berrogeitabost urte bakarrik dauzkat

eta ez ditut bi aldiz izango. Egingo dituanak orain egin bear ditut. Eta bizia, galtzeko ez ba da zertarako da? Biar nerekin eta nere semearekin etorri nai al dezu?

—Beste zer egiñik ez daukat eta gogoz.

Artan semea agertu zan sei beltzen buru zala, amasei urteko mutill galanta, aita bañan aulagoa ez zana. Apari legea egin zezan exeri zuten. Apalondoan, lekaideeri agur egin eta joan ziran Coredora. Ez lekaideak arren da arren Zubibururi esan gabe noiznai zerbaiten bearrean arkitzen ba zan aiengana agertzeko.

Oituera galdua ta ondo nekatuta iritxi zan Ander Coredoko etxera. Guk lenagotik ezagutzen degun etxe artara. Orduan ez giñuzen ikusi errenak gordeta zeuzkan dinamita, ixkillu, errebolberrak, janarik eta gañerakoak. Itxura gabeko ol batzuen azpin zegon iñork usteko ez zuan zulo aundi bat eta an denak gordeta. Goizerako gauzak antolatzen zituzten bitartean errenak eta Zubiburuk luzaro itz egin zuten urre gaitzaz. Errenak gauza egoki bat esaten zion: «Colombian Antiokia eta Choco dira urrea azaltzen dan bi toki onenak. Bigarrenera jende gutxi joaten

da. Lenengoan garai batean miatzalleak ugari ziran, bañan olak egiten asi diranean, denak urre lan ori utzi egin dute. Orrekin esan nai nizuke ain ona izan bear ez duala».

Urrengo goizean, aita-semeak, Zubiburu ta Polo ixkilluk bizkarrean zituztela Curitira joan ziran. Errenak, gañera, dinamita ta makilla ez zituan uzten. Iñork ez daki zertara joan ziran; beltzek zuzentzeko izango zan noski. Kanoa batean sartu ta Juradon gora asi ziranean, beste kanoa aundigoarekin topo egin zuten. Iru beltz barrenen, ixkilluz ongi jantzita. «Eup!» esan zuten beltzak. Besteak ixillik. Berriz ere, «Eup!» egin zioten. Berriz ere ixillik. Orduan asi zan zalaparta. Beltzek su egin zuten eta errenan semearen eta Polon ixkilluk ez zuten lorik artu. Anderrek ill naiago zuan berak beste gizon bat galdu bañan lenago. Laixter zan beltzetako bat kanoatik kanpora burua zintzilika zuala. Orduan beltzek arkaitz baten babesera artu zuten, bañan bitartean besteak su eta su, zantzurik ematen ez zutela utzi zituzten.

—Illak izango dira, esan zuan Anderrek.

—Baleike, erantzun zuan errenak, bañan katu zarrak bañan bizi luzegoa izan oi dute ta goraxeagotik artu bear ditugu.

Esan eta egin, errena kanoaren aurrean dinamita eskuan zuala, semea ta Polo ixkillukin bi aldamenetan, inguratu ziran. An zeuden lenengo beltza kanoatik kanpora burua zintzilika ta beste biak asnasik gabe etzanda. Zeuden bezela atera zituzten itxaso zabalera, eta an utzi zituzten Pazifikoren urak toki artan goruntz joaten dirala ta iñundik illdakoan susmurrik izango ez zala. Bañan erresguardokoak topatu zituzten; zer gertatu ote zan usandu ere bai; eta Juradon gora errenaren atzetik igo ziran. Errena bakarrik izan balitz bere Polorekin lanak izango zituzten erresguardokoak; dinamita eskuetan zeukan bitartean... kontu. Lenago ere ori ba zekiten. Bañan semea eta Batezere Ander an zijoazen. Iruditu zitzaion norbait galduko zala ta espetxe bidean jartzea erabaki zuan. Erresguardokoak Juradoko ondartzara eraman zituzten. Ura izan zan azkenengo estuasuna. Semea kañaberazko kaiola batean sartu zuten; Zubiburu beste batean. Besterik ez zeukatelako, nunbait, errena ta Polo

eskuk lotuta tartean zemaizkien Juradora. Eta antxe, ondartzan bertan, semearen aurrean, sargentoan beltzetako bat atzetik joan eta errenari labana bizkarrean sartu zion. Ez zun asnas bat geiago artu. Luis Gomez Lekuberen izaera an bukatu zan betirako.

Ordun, pixkanbat izututa, irurak azke utzi zituzten eta betarik galdu gabe Medellin aldera artu zuten.

—IX—

Medellin, erri ederra ta langillea. Beti epel. Betiko udaberria. Abizen euzkotarrak ugari, bañan jatorriz euzkotarrik bat bakarrik ere ez. Ez ziran urretik eta ezta oletatik ere bizi; ango lan geiena len eta orain kape biltzea da. Ingurutako mendik kapez ereinda daude. Andesetan mendi ederrenetakoak. Geienak soillak dira Andesetan, larru gorri azaltzen dira, bañan kapea duten mendik baso ederrez jantzita, zugaitzpean kapea madul azi dediñ. Kapea izateko estaliko dun basoan bear, epel bero antzean eguzkiak jotzen ez duala. Kape lur ori suge ta zomorro geieneko tokia izaten da. Medellin ikusteko ez dago kape tartean sartu bearrik. Zelai ederra, atsegiña, jende ona ta elizakoia. Ala ote dan jakitako ango eliz mordoia ikusi besterik ez dago. An sartu zan Zubiburu, ta lanean asterako katedralera joan zan otoitz egitera.

Ondorengo egunetan, toki batetik bestera galdezka, jakin zuan andik zazpi ordura bezela, autobusean joanda, ibai koskor bat ba zala

aspalditik urre zantzun miatua eta gero ere eziñ etsirik jendea lanera joaten zana. Orain jaberik gabe zegon. Egun batean autobusa artu zun eta an joan zan bakar bakarrik izena besterik jakin gabe. Bidea mendi gañean zijoan, iru milla metrotikan gora. Txoperrak esan zion tokin autobusetik jetxi zan. Biderik ez. Ibaiari berari nola edo ala saitsetik jarraitu bear. Azkenean, luzaro ibilli ondorean, Aralartik bi bider jetxita bezela, ikusi zuan toki bat zelai antzekoa eta an urre lanean ibillitako zantzua. Berago joan eta bereala itzuli zan berriz ere toki ura ikustera. Esan ziotenez urtean iru illabetetan bakarrik lana egin leikiana, beste bederatzitan euri bizia izaten dalako. Dena basamortua ta malkarra, antxe pittiñenbat zelaixeagoa. Arkaitz baten gañean exeri ta ala zion bere buruari: «Toki onera etorri aiz! Ordutan eta ordutan iñor eziñ ikusi leiken tokia. Etsiko al dek? Eta iraungo al dek? Bañan aulkerik alde batera utzi ta lanerako garaia besterik ez dek oraingoa. Emen zegok ire etorkizuna. Ementxe. Nork esan emendikan urre pillak eramango ditukela? Ez dizkirat urte asko bear ziara aberastutzeko. Eta, zertarako? Mirentxo

gabe mundu ontako urre gutzik zertarako? Dana dala Euzkadira urrez aseta joango nauk».

Kamiora igo zanean, ordu bi ibillita gero lenengo ikusi zun etxetxo batean sartu zan; besterik ez ainbeste bidean. Ezurretan zegon zakur zaunkalari bat atera zitzaion, eta arren zaunketara atxo tximel bat. Ez zion berealakoan sartzen utzi. Egia da barrunbe ura erakustekoa ez zala. Leiorik ez; sukaldea surik gabe; eltzea ta partza sutondoan zintzilikatzeke lagatzik ere ez zegolako; bi baztarretan iñorkiña etzateko; exeritzeko, bi petrolio kaja; igali ta belar ondu batzuek zintzilika... Atsoari galdetu zion ia ingurutan bilduko ote ziran bost sei lagun berarekin minan lana egiteko. Zionez zailla zan bañan al egiñak egingo zituala sortzeko. Medellinera eramán zuan kamioi batek. Urrengo egunetik aurrera naiko lan izan zuan mina bere izenean jartzen, tresnak, jakik, ixkillua, errebolberra, edarik eta gañerakoak erosten. Ez nai bañan lenago, denak antolatu zitun, eta atsoarena joan zan, denak kamioi batean zituala. Beste egun batzuetan gizonak azaldu ziran eta bere aiekin poliki poliki eramán zituan denak minara. Lekaidetako bero izugarri

artan izan zanean bere buruari esaten zion mundu ontan amaika aldetara lo egin leikela: amaka bat naikoa; gero iru milla metro bañan goragoko atso aren etxe artan otzak ebaki bearreran, iñorkiñ zikiñaren gañean lo egiten ikasi zun. Asi ba zan asi zan eta gogorrak pasa bear zituan.

Bere gizonekin lenengo etxe bizitza egin zuan, goitik bera guadia esaten dioten kañabera aundi batzuekin, zirrikitz betea, ibaiko uretik gora-xamar, malkar malkarrean, eta gero bestea langilleentzat aundixeagoa, gañerakoan berdiña. Erdin zintzilika krixallua; iñorkiñez antolatutako oia; oiaren ondoan ixkillua ta beti berarekin errebolberra. Beroak ito bear; edateko urik ez, ibaikoa oso txarra zalako. Garardoa ta jateko gauza asko eraman zituan latetan, bañan laixter igarri zion garardoa ezpañak bustitzeko ainbat besterik eziñ artu zuala ta jateko gogoa ziara galtzen zala. Baztar artan bizitzeko bertako zomorroa bear. Bere etxearen azpin egoten zan egun osoan zapo aundi bat, ikusgarria; gero txikigoa iruditzen zitzaion, bai, lagun egin ziranean. Eltxoak jan bear. Ixkilluz ill zitun sugelarruk sal-

tzen asi ba zan urrea bañan okerragoa ez zuan izango. An nola bizi iru illabete bakarrik izan arren? Denerako gogoia galduta iritxi zan, Miren galduta dena galdua jotzen zualako, ta illda ere ajolarik ez zitzaion. An gelditu zan.

Lenengo lana kanal bat egitea izan zuan; uste zuan erreten artatik errez bialiko zituala legorteko ur pixkak oso legorrean lana egiteko. Bereala bai talde bat egin zuan zulo aundiatik asi ta txiki txikitaraño azkenengoan ondar txea bakarrik gelditzen zala. Baiak urez dantzatzen gizan gizonaren indarrik gabe. Eta baien gañetik, ura gelditu gabe lur eta zikiñ-zantzu guztik kentzeko. Eta ori guztia euritan legortea asterako dena antolatua euki nai zualako. Eta nolako euria! Eskerrak egun osoko busti ura soñarentzat atsegin zala.

Urte artan euritea beñere bañan luzegoa izan zan. Itxura txarrean lanean astera zijoan. Bereala urrea sumatzen ez ba zun, jarraitzeko dirurik ez. Burutazio gaiztoak zeuzkan Zubiburu gizajokak. Andoni ta Bixentakin askoz obetogo izango zala milla bider pentsatu zun. Orain nola itzuli? Ezta illda ere. Lanerako sasoia gelditzen ba

zitzaion ogia sortuko zun. Okerren okerreanean zegoen bere burua galdua ikusten: itxaropena galtzen dan tokin ezer ez dago. Edozein gauze-tan asteko, ta naiz bizitzeko bakarrik, bi gauza bear dira: zerbaiten gura beroa izan eta gogo ura egia izatera iritxiko dala itxaropena. Oiek biak gabe gizona galdua da.

Noizbait atertu zun. Ander bere gizonekin lanean asi zan. Aste betean egindako lanak uralde batek eraman zizkan. Berriro asi bear. Inguru aietako ondarreri astindu ederra eman zioten. Pittinka, pittinka urre autsa biltzen asi zan. Urrea ikusteak piztu zun, bearra zeukan eta. Ezurretan zegoen. Iraun zezakeanik ez zirudin. Bere biziarengatik iñork ez zuan txanpon bat emango. Aintbesteraño auldu zan.

Bi illabeten burun euria asi zun beste bederatzirako. An bukatu ziran Anderren lanak. Irabazitako auts guztia ontza bat urre. Eta langilleeri zorretan. Euria asteakin baten eztulak eman zion, eta bere txixtun odol izpi bat azaldu zan. Bereala antz eman zion ura zer zan. Orduraño Miren, diruk eta denbora galdu zitun, eta ordun osasuna galdua arkitzen zan. Lanerako gauza

ez. Zorrak ordaintzeko langilleeri utzi zizkaten tresnak eta ontza bat urre autsetan zuala Medel-linera joateko asmoa artu zuan.

Zer egin zezakean gizajoak! Ura zan mutilla-ren planta! Ari bai esan zezaiokiala, ezurra dau-kak ugari mamirik ez zaik agiri. Kolore gabea. Bizarra ainbeste denboran kendu gabea ta geia-go kenduko ez zuana. Illea zurizka, ez alakoxea izana bañan. Agure bat bezela okertuta. Eztul txar bat, lotan zegona esnatuko ez zuana bañan esna zegoanari lorik artzen utziko ez ziona. Iñork ez zizkion irurogei urte bañan gutxigo joko.

Iñungo ezagunetara joateko bi akats zeuz-kan: lotsa ta gaitza. Zein bañan zein okerragoak.

Medellingo sarreratan ostatu ordeko etxe batzuek ba dira, ingurutatik datozen nekazarik bere otorduk eta loak egiten dituztenak, atzeko-aldeko ganbeletan abereak utzi ondorean. Bizitzeko, toki aiek bañan gutxigo gauza bat baka-ririk: utsa. Gañera, aietan biltzen ziran Medellingo eskaleak eta beste batzuek biziro zuzenak ez ziranak. Batezere lo egitera.

Illunabarra ezkerro, edozein arratsaldetan etxe aietako batera zijoanak, ikusi zezakean agure zar bat baztar batean, zaldik eta mandoak bañan atzeraxeago, iñorkiñaren gañean etzanda, oialezko estali bat gañean zuala, lotan edo lozorroan argizkilla arte. Gabeko bost zentabo ordaintzen zituan oi arengatik; eta gero, ematen zioten zankotxo izena duan eltzekariarengatik (bezperan egin eta goizean berotutakoa) ama-bost zentabo. Gizonari arkakosoak, tximutxak eta gañerakoak batetik eta janari aulak bestetik irauten uzten ba zioten ez zan galesti. Argizkilla-rekin jeikitzen zanean, gizona bañan geiago sor-

giña zirudin: estalia tolostatu, ganbelpean gordeta utzi, ta makilla baten laguntzarekin an joaten zan katedraleko zimitoriopera bidean bein bañan geiagotan exeriaz asnasa artzeko. Burua zurizka, bizarra zuria, sudurra medartua, belarrik obeki elbiaren egoak ziruditela, biziro okertua, lurreruntz begira bidean iñor ikusten ez zuala. Batak edo besteak bidean txanpon bat edo beste ematen zioten, eta noizbait zimitoriora irixten zan. An bere txoko jakiña zuan, ezkerretan sarre-rako ate ondoan. Lurrean pikoxtu, eskua luzatu ta ler egiñ arte egoten zan. Iñork ez zuan xinix-tuko, bañan ala zan: lotsak eta gaitzak Zubiburu artaraño eraman zuten. Ander Zubiburu uraxe zan.

Ogeitalau orduko bakartasunean gizajoaren burua berotzen zan beti gauza batzuek oldozten. Soña zimitorioan eta burubiotzak bere errin. Luzarorako ez zegola antz ematen zion eta ordun eta gogo aundigoa sortzen zitzaion bere ama ikusterako; uraxe zirrikitu batetik ikustea-gatik zeuzkan egun pixkak emango zituan. Alpe-rrik, joateko gauza ez zan eta. Egunak eta egu-nak joan zitzaizkan eziñ erabakiz Andoniri idatzi-

ko ote zion, edo bestela Urabako lekaideeri edo naiz Barrankillako ermutarreri, eta lotsak ez zion uzten. Jakiñ izan ba zun zein egunetan Jainkoak eramango zuan, bezperarako batari edo beste-ri idatziko zion agertzeko esanaz... ain bakarrik, bakartasun izugarri artan ez illtzeagatik. Nola-bait lertu bear eta bere amari idaztea erabaki zuan. Beta ba zeukan, eguarditik arratsalde erdiraño katedralera anima bat joaten ez zan eta.

Milla bider asitako eskutitza ta beste millatan puskatutakoa. Beti, gaizki egiten zuala iruditzen zitzaion: asko esan nai, denak eziñ esan... lanak zeuzkan. Bazkalondo bateko garaiean an zeuzkan lau orri idatzik eta beste ainbeste idazteko itxuran an ari zan. Ara lenengo orriaren asiera: «Nere amatxo maite maitearentzat eta nere arreba Kataliñentzat ere bai. Lenengo, barka zaidazue orrenbeste denboran ez idaztea. Ezagutzen nazute. Nere andregai bear zunari bere garaiean itz bat ez esateagatik galdu nuan, eta orain berriz ez mintzatzegatik zuek ia galdu zaitzuet. Arren da arren, amatxo, zure barkapena. Benetan damu det. Nastua ibilli naiz eta errez al zan gauzak zuzen egitea? Toki gogorretan ibilli

naiz. Edozein aspertzeko diñakoak. Emendik aurrera ez det lanik egingo». Geroxeago berriz: «Luzaro bizitzeko gogorik ez daukat eta uste det Jainko maiteak bere besoetara laixter eramango naula. Mundu au gauza pixka da ta ez da luzaro joango Bere aurrean guztiok elkar betirako ikusi gabe».

Bostgarren orrin zijoala, bi lekaime azaldu ziran zimitoriopean katedralean sartzeko. Garai artan nor izan litekean arriturik Anderrek burua jaso zun, baita ondo luzatu ere ogi puska eman nai zion lekaime aietako batengana, «Grrr...» bezelako soñu bat eztarritik atera zitzaion eta saits batera zerraldo erori zan. Monjatxoak jasotzeko asmoetan inguratu ziran eta masusta koloreko arpegi ura ikusi zutenean bereala konturatu ziran biotzeko kolpe batek ill zuala. Nunbaite-tik asi bear ta lekaimetako batek oraindik legortu gabeko orri idatzi berria jaso zun. Ala zion: «Guda madarikatu orrek sakabanatu ez ba giñun, nere Mirentxo Orreagarekin ezkonduko nitzan eta kito. Bañan apika emendik aurrera bearko det beñere bañan geiago Mirentxoren laguntza, neregatik otoitz egingo duala ziur nago

ta. Baezpada esan zaiozue». Eskutitza irakurri zuanak, begik lertzeko zorin zabaldu, burua illdakoari jaso zion, eta garbi ezagutu zun Ander Zubiburu zala. Lekamea belauniko erori zan; bi malko mardul ixuri zitzaizkan illaren musu gañera; ta bestea, zer gertatzen zan igarri gabe, bere ondoan belaunikatuta zeukala, mundu onetan leiken biotzkorrena asi zun: «Aita gurea zeruetan zaudena...»

Mirenek illa ikusi zuanean ez zion Anderren itxurik eman. Milla bider bere ondoan igaro eta ez zuan ezagutuko, ain zartua ta galdua zegon. Gañera, nundik pentsatu bear zun Medellinen izango zala? Beste aldera berriz, aztua zeukan eta ez zuan beñere galderarik egingo Anderren aztarrenik ateratzeko. Anderrek bai, batbatean ezagutu zun. Bere biotz aulak ez zeukan indarrik orrelako kolpe bati irauteko. Ta ala joan zan.

Gauzak ola izan oi dira. Iñork Mireni esan ba zion garai batean Ameriketara joango zala algarari emango zion. Bañan bera sartu zan tokiko lekaimeak erabaki zuten Ameriketara fundazio berri bat edo egitea, ta Miren beste batekin aukeratu zuten lan ortarako, maitekorra ta biotz-

korra zala ta. Medellin edo Bogotan egiteko asmoa zuten. Gotzai jaunak eta adixkide batzuek egokiena bezela esaten zioten tokin. Medellinera egun batzuetarako bakarrik joan ziran, gero Bogotara jarraitzeko asmoetan. Eta egun oietantxe gertatu gertatu zana.

Bereala Mirenek azalean zeuden paperak jaso zituan, gorde ta sakrirtira joan ziran zimito-riopean gizon bat nola illtzen ikusi zuten esatera. Egun artan bertan biali zizkion Anderren arreba-ri zer gertatu zan esanaz, zeñen beartsu ikusi zuan esan gabe.

—XI—

Uriaurrek ola lanean ipintzeko zorin zeukan. Ez zitzaion ezertarako betik gelditzen. Nagusikin itz egitea zala, langilleak billatu, erosi bear zituan gauzen balioa jakin, berak egingo zituana-rena zenbaki askoren ondorean erabaki; etxera joaten zanean ere buruan besterik ez zeukan. Ortan goikarri-xamarra zegon eta Bixenta asper-tua zeukan. Zenbat bider esan zion: «Zurekin bizitzeagatik etorri nitzan eta ez naiz zurekin bizi». Andoni dirua irabaztearekin itxutua zegon eta erantzuten zionean lenengo dirua bear zute-la esateko izaten zan. Bixenta bere senarrarekin sendi ezagunen batengana joan eta txokolatea edo tea artzeko ortxe nunbait, bañan bakarrik ibiltzeko gauza ez zan, jende arekin eziñ oitu zalako.

Goiz batean, gosaltzen ari zan bitartean, Andonik izparringi bat aurrekoaldean zeukala, Medellingo berri bat irakurri zuan: «Atzo bazka-londoan, bi lekaime katedralean sartzera zijoa-zela, atetan zegon eskale zar bat illda erori zan.

Bere paperak ziotenez, bere izena Ander Zubibururu». Andonik naigabe aundia izan zuan. Bixentari erakutsi zion eta bereala Medellinera joatea erabaki zuan. Egun batzuetan kanpoan izateko gauzak antolatu zitun eta amarretako egazkarin joan zan. Ibilli trixte asko egiña zan, bañan ura beziñ trixterik ez. Gogo bat bakarrik zeraman: gauza guztik sustraitik jakitea. Biotzak esaten zion lekaime aietako batek Miren Orreaga izan bear zuala. Amaika terditan Medellingo katedralean zegon. Zimitoriopeko baztarrak ongi ikusi zituan. «Emen ill uan», esaten zion bere buruari. Sakrixtira joan eta elizkizunak goizeko zazpita nola egin zizkaten jakin zuan. Meza entzuten bi lekaime bakarrik. Esan zioten bi lekaime aiek zein etxetan zeuden eta aietara joan zan. Naiz bazkaltzeko garaia izan, zilimoni askorik gabe atea iriki zioten.

—Andoni Uriaurre naiz, Ander Zubibururekin Ameriketara etorri zan laguna.

—Gizona!; zu zera beaz Andoni Uriaurre?

—Bai, andrea. Zuetakon batek Miren Orreaga izan bear du.

—Ni naiz, esan zuan arretik itz egindakoak.

—Amaika bider Anderrek izentatua. Jakin det elizkizunetan izan zeratela ta biok bakarrik ziñatela.

—Alaxe da. Nere erritarrari guk laguntzen ez ba genion nork joan bear zun? Gañera kanposantura joan gera bere ondorean. Gaur edo biar bere etxekoak ezurak eraman naiko dituztela ta siñale garbi bat utzi nai genduan bere illobin gero zalantzarik ez izateko. Atzo bertan, sakrix-tin gertaera esan ondorean argiñ batengana joan giñan eta illobirako arri bat erosi genion itz oiek altzairuz idaztekotan: «Zubiburu'tar Ander, Euzkaditik onera Jainkoaren besoetan bere anima uztera etorri zan. Goian bego».

—Jainkoak ordainduko dizute. Jendeari erakusteko zuek bezelakoak bear dira. Eta Anderren gertaerak bai al dakizkitzute? Nun izan zan? Zer egin zuan? Nolatan etorri zan?

—Ezertxoere ez dakigu. Bizi zanik ere ez genekigun. Zimitoriopean arkitu giñan gu biok, katedralean iñor ez eta otoitz batzuek egiteko garai onena zalako. Sartzerakoan, lurrean exerita idazten ari zan eskale batek, alakoxe «Grrr...» bat egin zuan eztarriarekin guri begi zabalez

begiratuaz. Erori zan etagu inguratu giñanerako illda zegon. Idazten ari zan paperean nere izena ikusi nuan eta bereala igarri nuan dena. Ander zan, Ander bere amari idazten azken gogo antze-
ra. Ikusia zegon luzaro bizitzeko ez kemenik eta ez itxaropenik ez zeukala. Besterik ez dakigu. Orain zuk ikusi bearko dezu zerbait jakin ote lei-
ken eta jakiten dezun ori ama-arrebari esatekoa ote dan.

—Eskerrak arren da arren. Ez da errez izango nik ezer jakitea. Itxaropean geiago ez deala, gaur Anderren illobira joan ondorean Bogotara itzuliko naiz. Ola bat egin det bertako aberats batzuekin bazkunduta eta lanean asteko zorin oraintxe gaude.

—Bakarrik bizi al zera?

—Ezkondu nitzan. Nere erriko batekin.

—Eta nolatan ekarri ez dezu?

—Egia esateko, gaur goizeko berriak oso nastu nau ta ez negon ezertarako. Obe izan dala uste det gañera. Anderren illobiaren ondoan nere buruari galdetuko nion, aldamenean neukan Bixenta ura nik Anderri ain bero esaten nion ura bera ote zan. Ezkontzak akats asko ditu.

Kanpoan daudenak sartu naiean, barrenen daudenak eziñ atera...

—Zuek eta guk, esan zuan Miren lekaimeak, mundu pixkontako atsekabeak Jainkoari eskeñi bear dizkagu. Guztiri iruditzen zaigu gurea iñori gertatu ez zaiola. Orrek eta zer gertatuko zaigun bildurrak elbarritzen gaitu, eta gerta leiken ori geienean ez da gertatzen.

—Nerea ondo gertatua dago.

—Zer dezu ba?

—Zer izango det. Etortzerako kapitan mingainluze batekin zerbait izan zun eta alabarekin etorri bearko zuala esan zidan. Etortzeko esan nion eta orain iruditzen zait kapitan ura eziñ aztu duala eta irudipen orrek nazka artuazi dit. Ez da arritzekoa: emakumeak lenengo izan duen gizona aztutzen dute azkena. Eta okerrena, alaba gaixo ori eziñ ikusi deala. Nere alaba bezela artzekotan, ondo ziñez, ekartzeko esan nion, eta gauzak ez dira izaten guk nai genduken bezela. Gauza baten atzetik elusioz beterik gabiltzanean, bidetako arantzak errezegi leuntzen ditugu. Ingalandarrez esan oi die oieri «wishful thinking» (gogoz edo desioz betetako oldozmenak).

—Jainkoak lagunduko dizu. Zuk zintzoa izatea naikoa dezu. Bere eskuetan dena utzi zazu. Eta gaur bertan al zoaz?

—Egazkaririk ba da bai. Bestela biar goiz goizean joan bearko det. Orain kanposantura noa. Bazkalondoan joan nai ba dezute, zuek esaten dirazuten ordurako an izango naiz eta Ander gizajoak izan dezala bere animatzaz gogoratzen danen bat.

—Joango gera. Iruretan?

—Iruretan.

Anderrek ongi igarria zeukan Mirenen otoitzak uts egingo ez ziotela. Igarri ez zuena, Mirenekin batean illobi aurrean Andoni izango zala. Mirenekin topo egiteak asko lasaitu zuan Andoni. Andik aurrera, noizean bein norekin lasaialdi bat artua ba zeukan. Urrengo goizean egazkaria artuta Bogotara joan zan.

Iritxi zanean, Bixenta zerkausira aterea zan. Etxea utsik, umezai zeukaten nesga-koskor batek alde egin ziotelako. Etxe utsak barrunbea irauli zion. «Au dek nere etxea», esan zion bere buruari. Bixentari itxo egin gabe, olara joan zan.

Etorria zala adierazteko maiaren gañean Medellinera eraman zuan pardeltxoa utzi zun.

—XII—

Bixenta asperturik zegon. Egunaren ordu geienetan senarra etxetik kanpora izan oi zan. Egia, asiera artan lan asko sortzen zitzaiola ta jolaserako gogo gutxi izaten zuala; bañan jai ta aste, gau ta egun lanean, etxean iñor zegonik gogoratu gabe... Aserre bat ez zuten izan. Itz bat bestea bañan gogorragorik ere ez, bañan bakoitzaren ibillerak eta izaerak itzak bañan garbigo mintzatzen dute. Bixentak aspaldin ezagutua zeukan Andoni lengoa ez zala. Antz emana zeukan ezkontza damutu egin zitzaiola. Trixtura aundietan bizi zan. Andoni lanetik etxera joan zanean al zun leunena artu zuan:

—Medellin aldean ongi ibilli al zera?

—Ander gizajoa ikusteko garaiz ez nitzan irixi, goizeko zazpiretan lurperatu zuten eta. Miren Orreaga ezagutu nuan. Zimitoriopean Ander illtzeko garaiean gertatutako lekaimetako bat Miren zan.

—Aitaren, Semearen... Gauzak nola gertatzen diran... Eta elkarren berri ez zuten jakingo?

—Andoni, ez zekilako ill zan. Ezagutu zuanean. Mirenek berriz illda gero ere ez zuan ezagutu idazten ari zan eskutitzean bere izena ikusi zuan arte.

—Bere amak jakitean a zer nolako tanpatekoa.

—Nundik asi ez dakianean nago. Mirenek arrebari idazten asia zeukan eskutitza biali dio ta orain nik esan bearko diot zerbait. Ezer jatekorik bai al daukazu?

—Bazkaria egiña dago.

—Zopa naikoa det. Bereala lanera joan bearra daukat eta.

—Gizona, itotzeko zorin eziñ biziko zera beñepein. Lasai jan zazu, ta izketa alditxo bat egin ondorean joango zera.

—Ez, ez; ba noa.

—Zopa jan gabe?

—Berdiñ litzaiket. Ekatzu, ta janda joango naiz.

Otordu motx ura itz bat geiago gabe gelditu zan. Uriaurrek olan lan bat zeukan bitartean, Bixentari etxean bestea sortu zitzaion: negarrari eman.

Bakarrik negarra egitez aspetu ta Parke de San Diegora joan zan bere aurrarekin. Exerialdi bat egin ta tximu txar batekin zegon gizon batengana inguratu zan. Norbaitek txanpona ematean, tximuak kutxatxo batetik txartela ateratzen zuan, nagusiari eman eta nagusiak irakurtzen zuan, txartelak zionez, txanpona eman zuanaren etorkizuna. Bixentak geiegi zekian gezurra besterik ez zala, bañan emakumea beti ikusmira zalea izan oi bai da, ta aldamenetara begiratu ondorean, bere lotsa pixkarekin, tximuari txanpona eman zion. Tximuak txartela bere xarpatartean zebillkin bitartean Bixentari otzikara sartu zitzaion. Eta nagusiak bere eskuetan artu zuanean ia asnasik gabe entzuten jarri zan. Onelazion: «Zure sendiak ez du beti osorik iraungo. Egun onak izango dituzu bañan garratzak ere bai, eta apika oraintxe zaude garratzenetan». Garai batean, Grezi zarreko Delfos-en Apoloren elizan zegon Pitonisak, antz ortara esango zuan: naiz pixkat okertu bearra izan beti zerbaiti asmaitxura emateko bidea. Ajolik ez zaionak par egiten du, bañan erantzupenan zai dagonarentzat dena egia balitz bezela. Bixentak bereala

pentsatu zuan osorik ez iraute ura Andoni eta berarengatik izango zala; eta egun zori onekoak sendia puskatzean etorriko zitzaizkela, garrantzetan zegon eta. Naiko buruauste bereganatu zuan.

Aparia baniatzeko, illunabarrerako etxeratu zan. Berandu-xamar, beti bezela, etxeratu zan Andoni. Nekatua eta izketarako gogorik gabe; ori ere beti bezela. Bixentak negarrari eman zion.

—Gauzak bi bider egin bear ba lirake..., esan zuan Bixentak.

—Zer damutu zaizu?

—Onera etorria. Zu lanpetua ezertarako gogorik gabe, emen gauzkatzu bizi ez bagiñake bezela. Zenbatez ohea izango zan, nik an itxo egin, zu lasaitzean joan eta guztiok pozik eta ondo bizitzea. Tximuak egia esango zidan, bai.

—Zer tximuk?

—Parke de San Diegon dagonak. Txartel ego-
kia atera ditela esango nuke.

—Ezin leike. Zuk zendun beziñ buru ona ta orain tximuen txarteletan xinixten?

—Ni beziñ asea ba zeundeke zuk ere tximuarri edo txakurrari entzungo liozuke. Au ez da bizitzea.

—Eta zer dio ba tximuak?

—Tori. (Eta txartela eman zion).

—Bai; sendiak ez osorik irautea betikoa da; norbaitek ill bearko degu eta orduntxe puskatuko da. Egun onak izango dituzula ere baita; bestela, itxaropenik gabe nola bizi? Bañan garratzak ere baietz; jakiña, bixkotxotan, atsekaberik gabe nor bizi da? Eta apika oraintxe zaudela garratzenetan; ai ala balitz; «apika» esaten du bai, ta ala beti asmatuko du. Eta ori al zendun dena?

Apalondo artan aspaldin egiñ ez zutena egiñ zuten: aurra lotan utzi ta biek kalera joan. Etxe barrunbean aspertu bearrean beste toki batean aspertzera. Alaitasunik ez. Beste asko ibiltzen diran bezela, bata aurreraxeago bestea atzera-axeago elkarri itzik esan gabe. Atera ordurako ao zabalka asi ziran, oñetakotan kalte gutxi egiteko itxuran. Oiera. Etxetik ateratzerakoan Bixentak poz pixkanbat artu zuan, aldaketa gau artan asiko ote zan edo, eta bururatu zitzaion urrengo arratsaldean tximuari eskerrak ematea. Ez zan

alakorik izan. Lurrezko eltzea autsi zan eta ura konponduko zuan alegitarrik ez zan agertuko. Ondorengo egunak ala igaro ziran, ezertarako gogorik gabe.

Andoni lanera beste edozein tokitara bañan gogo geiagorekin ez zan joaten. Gerta lezaiokian okerrena gertatzen zitzaion: bere izaerari nazka artzea. Jakin Bixenta errian arrotz zan batekin ibilli zala, ta ala ere beregana eraman bear; jakin zikulu-saltsa artatik (orain zikulu-saltsa iruditzen zitzaion) aur bat jaio zala ta berarekin bizi bear; bat bañan emakume geiago aukeran izan eta kezkaz beterik utziko zuanarekin bildu bear... Lan betean ari zanean aztutzen zitzaizkan zer-bait, bañan bereala gogoratzeko. Gauza goikarria.

Bere lantegirako makina sortu berri bat bear zala ta United Statesera joatea egokitu zitzaion, nagusik ziotenez berak ongiena erosiko zualako. Arretzek poza eman zion: illabeterako etxetik alde egiteak.

Makinarekin eta makinarik gabe beti burutazio bat zeukan: Bixenta. United Statesera joatea erabaki zanean lenengo pentsatu zuan bereala

Bixentari esatea nola illabeterako joan bearra zeukan; gero, atera baño egun batzuek lenagotik esatea naiko izango zala, ondorean berriz, ateratzerakoan bañan lenago zertan jakin bear zuan; ezer esan gabe joatea ere pentsatu zun. Okerren okerrena, ura illabeterako bakarrik zala eta berriz ere etxera etorri bear ko zuala. Eta orduan nola?, erregaloekin? Norentzat?, kapitaren alabarentzat? Garai onean, ume gaixo arri gorrotoa artzen asi zanean. Eziñ ixilldu ta gau batean Bixentari esan zion:

—Ba noa.

—Nola?

—Ba noala. United Statesera joan bearra daukat eta illabeteen ez naiz etorriko. Bitartean bear dezun dirua olan eskatu besterik ez dezu.

Biek ixillik gelditu ziran. Bixentari berriz malko sendoak ixuri zitzaizkan. Aren burua ere ez zegoen lotan. Andoni galdua ikusten zuan eta bera bakarrik bere alabatxoarekin. Andoni zijoan tokitik etorriko ote zan gero. Galdetuko ote zion ba? Galdetu ezkeroz berriz, gauzak okerrago geldituko ez al ziran? Etsi etsi eginda, zergatik joan bear ez zuan bere etxera illabete birako, eta

apika itzulean Andoni beste bat izango zan. Eta Andoniri nola esan? Aurrak orduraño «ama» besterik ez zuan esaten. Orduntxe lenengo, amak gogoz erakutsitako «aita», esan zuan. Andonik entzun eta zakarraldi batean etxetik iges egitea bat izan zan. Gau erdia, ordubata, ordubik, irurak, argizkilla, ta Andoniren zantzurik ez. Okerren bat gertatu ote zan bururatu zitzaion eta bere artan olara joan zan. Atezaiak esan zion gau guztin lanean aritua zala. Ordun, lasaixeago, berriro etxeratu zan. Andoni eguardin agertu zan.

—XIII—

Deabrua beti ernai dago. Lagun baten bidez, Bixentak kapitanaren berrik izan zituan. Bere sendiak ezer ez zion esan, bañan adixkideak geienean bekaitzkor izaten dira ta lagun orrek adierazi zion. Zertarako? Bixentari zer on etorri zezaiokean berri aiek jakinda? Bañan adixkideari su ematea jaio zitzaion bere gogo okerrean. A!, adixkide on batek zenbat balio duan iñork ez daki! Argatik adixkide onari eutsi bear zaio biotz biotzez, amaren ondorengoa duala xinixtuz eta berarekin gauzak amarekin egingo lituzkean bezela egitekotan. Adixkide ona Jainkoak bialtzen digun aingerua da.

Bixentari idatzi ziona ez zan onetakoa, baizik geienak bezelakoa. Bestela ez zizkan esango kapitana berriz errira etorri zala, Bixenta an zegolakoan; bera ikusteagatik bakarrik etorria zala; Andonirekin ezkondu gabe bizi zala esan ziotela; kapitana bera alargundu zanean Bixentaren eske etorria zala; eta Andonirekin ezkondu gabe zegoala jakin zuanean nola edo ala bere

berrik jakiteko gogoia erakutsi zuala; ta berak, idazleak, gogoz laguntzen ziola... baezpada.

Bixentari, egia esateko, nazka eman zion eta ez zuan erantzuteko asmorik. Orrek beste alde bat ba zuan: Andoniri esango ote zion ala ixillduko ote zan. Andoni zegon beziñ itxua egon ez ba zan, zalantzarik ez zegon: denak garbi esan; adixkide izeneko arren eskutitza erakutsi. Bañan Andoni zegon bezela, errez al zan?; zer irudituko zitzaion?; okerrenera ez al zuan joko? Lanak zeuzkan. Eta lenbaitlen erabaki bearra, Andonik egun batzuetan ixilldu zala ikustea okerrago izango zalako. Ixilltzea erabaki zuan.

Goiz batean Andonik esan zion:

—Zer soñeko dauzkaten edo ikusi bearko degu, biar United Statesera noa ta.

Bixentak, ez dakigu ausardia nundik aterata, erantzupen ordeko bezela:

—Ai zazu, Andoni: Ez ote litzake egoki ni ere illabete birako nere etxera joatea, nereak ikusi, beste gauza asko pixkat aztu...

—Ba zoazteke nai dezun denbora guztirako.

Berriz, askotan bezela, Bixentaren malkoak erruz erori ziran.

—Iruditzen al zaizu ba zuk ots egiñ arte an egotea?

—Egon, egon.

Zalapartan, nolainai, Andonirentzat bi maleta ta besteentzat kutxa ta maleta antolatu zituzten. Urrengo egunean Barrankillara joan ziran. Ontziz, zemaikien trasteak egazkarirako geitxo pixatzen zuelako. Eskerrak ibai aundi arren inguruk ikuskarrik zirala, ortxe nunbaiteko joanera egin zuten. Andoniri berritzen zitzaizkan Ande-
rrekin igo zaneko gertaerak. Bixentarentzat dana berria. Uraldea zijoan eta Barrankillara iru egunean iritxi ziran. Eta an, jakiña, kezka pixka-
tekin, ermutarretara. Egun gutxi barru Andoni-
ren ontzia atera zan. Bixenta bere aurrarekin eta ermutarrak an zeuden kaian. Gure senar-emaz-
teak ongixamar alegitu zituzten bere atsekabeak eta ermutarrak ez ziran konturatu egia zer zan, edo egia zenbaterañoa ote zan beñepein. Bixentak negarra maramara egiten zuan. Ermutarretako batek, kupiturik, esaten zion:

—Emakumea, zure buruari ez zaiozula eman orrelako tratorik. Senarra berriz ere etorriko da, zu ere bai, eta lenago bezelaxe biziko zerate.

—Ori orrelakoa da, esan zuan Andonik.

Andonik bakarrik zekian Bixentaren negarrak zer esan nai zuan. Ontzia irten zanean, emaztea ez zan gauza eskua jasotzeko ere. Andoni laixter barrenen ezkutatu zan, iñork malkoak ez ikusteagatik, ermutarren ustez.

Beste astebete egongo zan Bixenta Barrankillan. Bere ontzia ere etorri zan. Berriz ermutarrak lagundu zioten. Colombiako gauzetatik beñere aztuko ez zitzaiona sendi uraxe zan. Jende ona, apala, biotzkorra...

—XIV—

Ontzian jaiak sortzen ziran, eta emakume gazteak izan ezkerro berriz errezago. Jolasak, dantzak, ontzi batean leizkenak ba ziran. Bixenta bere gelatik ez zan ateratzen, jantokirako besterik. Ontziko nagusia joan zitzaion bein leun leun ia zergatik ateratzen ez zan galdera egiñaz. Beste guztik ongi jolasten ziran noski. Adixkiderik ez ba zuan, an zegola nagusia bera gogoz laguntzeko. Bixentak baezpada, laixter garbitasunak egin zituan: ezkondua zala esan zion, eta bera zan erriko emakumeak senarra ondoan ez zeukaten bitartean beste adixkiderik artzen ez zutela. Nagusiak bereala igarri zion emakume zintzo ta zentzukoa zala, ta geiago iñork ezer ez zion esan. Pakean zijoan. Bide erdin bezela izan zuten ekatiz ikaragarria. Orduan denak beren geletan sartu ziran. Bixenta bakarrik beñere ez bezela, ontzi gañean, olatukin bustitzen eta otzarekin dardar. Ez zuan bere bururik galduko, ez, bere xinixmenak ezurretaraño sartuk zeuzkako, bañan zenbat bider esaten zion bere burua-

ri, ekaitz arrek ontzia ondatzea onena izango ez ote zan. Konturatu kanpoan zegola ta nagusiak bereala agindu zuan nola edo ala emakume ura bere gelan sartzeko.

Etxera bertaratzen zijoan bezela Bixentari larria sartzan asi zitzaion. Etxekoak ez zekiten ba zijoanik. Bere eskutizetan ez zuan beñere esan itz gogor edo ez bear bat Andonirengatik. Orain zer esan bear zuan? Ia ia artuko ez zutela ere gogoratzen zitzaion. Ezkondu aurretik larria larriaren ondorean; ezkondu eta egun alai bat ez; izaera ederra etorri zitzaion. Gauza batek alaitzen zuan: Euzkadiko lurrak ikusi edo ez ikusi zeuden garaiean, itxasoak beste usai bat zeukala iruditzen zitzaion; orduraño usai kaxkarra; orduan itxaso usaia, egitakoa. Urrun xamarretik, Matxitxakok estali bañan lenago, Iزارo ta Elantxobe ezagutu zituan; Elantxobe bera ez zuan ikusten bañan bai bere arkaitza. Toki aiek ikustearekin artzen zuan pozak belar ondu usaia ere ekartzen zion, trainera bat ikusi zuten agur egiten zioten mutill jatorrekin. Geroxeago lurren orlegi ta illunak ezagutzen ziran. Ura zan gauza ura! «Ortik ateratzea debekatua egon bear

luke», esaten zun bere artean. Bilbora iritxi zanean, nolabait eten bear eta bere etxera urrutizkiñez itz egin zuan. Ama atera zitzaion eta ordu gutxi barru anai bat an zuan bere eske etxeko berebillean.

—Emakumea, zer zabilta?

—Zer ibilliko naiz: Andonik orain ola berri orrekin lan izugarria dauka ta berak pixkat lasaitzean ots egin arte zuetara etorri naiz.

—Gañerakoan, osasunez ongi utziko zenduan ba.

—Bai, ederki dago. Dazkan lan guztik ez dute menderatzen. Bañan aldi batean bestetarako ez dago.

—Zuek nola zerate?

—Zuk utzi giñuzunean bezela. Ondo. Aita-amak ere bere artan irauten due.

Erriko ezerezkeri guzitzaz itz egin zuten. Ziranak eta ez ziranak nastu zituzten. Apika Bixentak esango lukian gauzan bat ixilltzen zuan, baita anaiak ere, bañan berriketarako amaika gai ba zituzten eta gogoz egin ere bai.

Ama, ama betikoa!... Alaba ikusi zuanean geiago ateratzen ez ustea lenengo burutik pasa

zitzaion. Alaba beti bere ondoan bear zuala. Lenengo egunean guztikin itz egin bear eta tarte egoki bat ez zuten izan biek bakarrik itz egiteko. Bigarrenean etorri zitzaien biotzak zabaltzeko garaia.

—Ume, sartu ziñanerako antz eman nizun biotza bi puska eginda zatozela; zer dezu?

Bixenta, gaixoa lurrera belauniko erori, bere amaren belaunak besarkatu, kokotza gañean jarri ta negarra gogoz egin zuan. Alaba ala ikusirik ama ere negar bizin asi zan. Aldi batean itzik gabe egon ziran; esan leike bien malkoak aitu arte egon zirala. Azkenean amak autsi zuan:

—Umea, dana dala esan zazu. Edozein gauza izanda ere ni beñepein zure aldera nago, ta okerranean ere aita jarriko det, baita anai-arrebak ere. Zer da?...

—Andonik ez nau maite. Oso ondo artu giñuan, nerekin zoratu bearrean eta alaba berea zuala esanez, bañan laixter itxura eman nion damutua zegola. Zergatik? Neonek ez dakit. Egia lan asko daukala bere ola berri orrekin. Egia ez jokalaria, ez moskor eta ez gonazale dala. Zintzoa. Bañan nere ondoan beti itun eta itzik gabe.

Kapitana buruan ote daukan edo. Ura ez zan bizitzea. Al egiña loxintxak egiten nizkan eta arantzaz betea egon banitz bezela bultzatzen zidan. Zure illoba gaixo orrek bein asmatu zuan «aita» esaten eta zakarripurdi bat egiñik iges egin zion. Ura ez zan bizitzea. Asieran arratsalde bat edo beste eraman niñuan sendi lagunetara; geroxeago ori ere ez; kalera ateratzeko lotsaz negon ezagun aiek zer esan bear zuten pentsatuta. Oso bakarrik bizi nitzan. Bakarregi. Galtzazalea nitza-la xinixteko bidea emana negon, bañan Bogotan ondo erakutsi det nere izen garbiaren jabe naizela; eta Andonik asko jakin gabe. Nork burutu ezer esan ba nion! Ainbeste illabete itunen ondorean gertatu zan berak United Statesera joan bear zuala illabeterako makina sortu berri bat eroatera, eta orduantxe ausardia izan nuan bitartean ni etxera etorriko ote nitzan galdetzeko; illabete birako esan nion; eta bai al dakizu zer erantzun zidan?: «Zoazte nai aña denborarako».

—Neska, ori al dezu dena? Au zure etxea da; etxean ez zera kaltegarri; emen, lasai, nai

dezuan denbora guztin egongo zera; naigo nuke ni bizi naizen artean eramango ez ba ziñuzke.

Bixentak berriro negarrari eman zion. Eta gero:

—Maite det ordea... Ori da ba gauza... Bera gabe eziñ biziko naizela... Gañera exurberrik aurrera xamartuk dauzkadala iruditzen zait...

—Obe, zu ta zure alaba, ta datorrena, denak nereak.

Gezurra dirurin gauza, andik aurrera ama osasunaz irabazten asi zan.

Bereala, adixkideak Bixenta ikusi naiean etxera etortzen asi ziran eta ez zuan etxetik ateratzeko betarik izan. Ori, ama-alabak lenbailen ateratzen astea egoki zala erabakia zeukatelarik. Jakiña dago denak lenbizi senarrarengatik galdera egiten ziotela, batzuek zuzen, besteak ziri antzera, bañan guztik bat. Bakoitzari esan bear izaten zion ongi utzi zuala, lanpetua zegola ta aldi batean bakarrik obetogo egongo zala... Batek ala zion:

—Kostako zitzaizun ba uztea?

—Egitan maite danean, ori bera ere, aldi baterako urruntzea, gogoz egiten da, maite

danari ori ondo etorriko zaiola ezagutu ezkerro. Maite danari ez zaizka gauzak eskertzeko egiten, baizik berari ongi etorriko zaizkalakoan.

Azkenengotan joan zana, kapitanaren albiztea esanaz idatzi ziona. Masaillak ederki gorritu zitzaizkan. Ia nundik asi ez zekian.

—Ongi ibilli zera beaz?

—Oso ongi. Etorreran itxasoaren erdin denborale gogor bat izan genduan, bañan gañerakokan oso ongi.

—Eta Bogotan? Toki alaia al da?

—Etxetik atera ezkerro toki alairik ez da; bañan senar ona izan ezkerro, eta Andoni onetakoa da, zertarako geiago? Zertarako tokiaren alaitasuna, alaitasuna etxean ba daukazu?

—Milla bider damutu zait, Bixenta.

—Zer gero?

—Zuri kapitanaren berria esana. Ezkongai zeundela uste nuan. Erri oietan ainbeste gauza esaten dira.

—Ori ezer ez da. Kapitana ez da etorriko egia jakiten duanean.

—Barka zaidazu beñepein nere uts egitea.

Ortan asmatu zuan. Kapitana ez zan agertu.

Bixentak oituera bat artu zuan. Etxetik oso urruti gabe, mendi ttonttor baten gañean saletxe txiki bat zegoen. Arratsaldero, naiz jasarekin, naiz eguzkitan, bai otzarekin eta berdiñ beroarekin, saletxe arren atean exeritzen zan Amerika alde-
ra begiratuaz. Orduk joaten zitzaizkan an otoitz egiten bere Andoniren osasunarengatik. Errin, pixkanbat txoratuta zegola edo berriketan asi ziran. Erriko esaneri asko begiratu gabe, Bixenta arratsaldero saletxearen atera, Ameriketara aldera begik zituala. Norbaitek andik Amerika ikusi al bazezakean, uraxe Bixenta izango zan.

Andoni, United Statesetik itzulean etxean sartu zanean, gauzak nolaini berak ateratzen zituzten bezela ikusi zituanean, jantokin exeri, besoak maigañean jarri, kopeta besoen gañean... ia ill naiago zuan. Denbora luzea egin zuan artan. Ziara auldua gelditu zuan, atepetik sartutako Bixentaren eskutitz bat irakurtzeko gogorik gabe. Aspertu eta oi gañera zijoala lurrean beste eskutitz bat ikusi zuan: kapitana-
ren berri emanaz adixkide txar arrek idatzi ziona. Andonik irakurri zuanean, ahoa zabaldu, begik lertzeko zorin, eziñ xinixtu zuan aurrekoaldean zeukana: «Ori genduan beraz dena? Neri loxintxak eta kapitana biotzean eta buruan? Paltzo txarra! Antz emana neukan bai. Garbi dago etxera joatea kapitana ikusteagatik antolatua zuala. Orain ederki ibilliko da bere-arrekin neri par egiñaz. Bañan au bera al zara nik ezagututako Bixenta?, emakume biotz onekoa, burua ez okerragoa, zentzu utsa? Ezin leike. Nik ezagutu nuanetik aldaketa ori? Gudak orrenbeste okertu

ote du ba? Ezin leike. Bañan paper au eskuetan daukadala nola ukatu nezake? Gauza garbia dago: Kapitana maite du; ni parragarri».

Buruan orduan pasa zitzaizkanak! Lenenlenengo kable bat ipintzea geiago ez etortzeko esanaz. Gero, orrekin jendeak par egingo zuala ta, eskutitz zorrotz bat idaztea, izugarrik esanaz; motxa, al zuen motxena; bañan esan bear zizkanak motxean eziñ sartu ta luzea egitea pentsatu zuan. Jainkoari eskerrak ortan joan zitzaizkan egunak. Ordurako, Miren Orreaga, lekaimea, Bogotan bizitzen zegon bere lagunarekin fundazio berriko etxean eta beregana agertzea erabaki zuan.

Lekaimeak ikusi zuanean ez zion itxura onik eman. Ain galdua zegon egun pixka aietako berotasunekin.

—Zer zabilta?

—Zer nabillen? Ara, azkenean gertatu bear zuana gertatu da, ta norbaiti esan gabe ez nago lasai. Zurekin izketa aldi bat egitera nator.

—Zer dezu ba? Olako lanak gaizki al dijoaz? Bixentarekin aserre aundiren bat izan al dezu?

—Okerragoa. Bixentarena da bai.

Gertaera guztik esan ondorean, onela bukatu zuan:

—Orain egun batzuek United Statesetik etorri nitzanean, ara zer ikusi nuan lurrean, ez dakit Bixentari zalaparta artan aztua edo intentzio txarrez utzia (eta eskutitza eman zion).

—Bañan gizona, irakurri ondorean esan zion Miren Orreagak. Emen Bixentaren obenik ez dago. Onengatik Bixentaren juizio txarra egiten ba dezu, gaizki egiña izango da. Ni beste gauza bat irudituta nago: zuk asko maite dezu, berak ainbat, eta galduko dezuan bildurrak irudipenez betetzen zaitu. Ori besterik ez dezu zuk: irudipenez betea. Zuk esan azkar Bixenta berriz emen dezu. Bañan izketan kontuz ibilli. Eginkizunekin agertu bear diozu maite dezuala eta ikusiko dezu adixkide txar orren eskutitzak nola ezertxo ere balio ez duan.

Itz aiek Andoniri on egin zioten. Ez zituan oso xinixten, bañan apaldu zan. Ori bai: Bixentari, bere gogoz etortzen ez zan bitartean, ez zion itz bat bakarrik idatziko.

—XVI—

Andoniren ama beiñ bañan geiagotan bere errañaren etxera joan zan. Gajoak bere semearen berrik jakin nai zituan eta aztarren garbirik ez zuan ateratzen. Bixentak ezagutzen zuan egiak amagiarrebari atsekabe aundia emango ziola; ezagutzen zuan gañera Andoniren ama bere semearen alde jarriko zala, Batezere berak semearentzat zeukan itxutasunarekin, eta al egiña ixilldu egiten zan.

Illunabar batean, beste guztietan bezela, an zetorren saletxetik muñatzean bera emakume eder bat, ez berez beziñ liraiña. Kamiora iritxi zanean, amagiarreba bere alabarekin zai zeukan.

—Denak ba dakizkit, esan zion. Nere semea oso ona da, Bixenta. Ziur nago zure zurea dezula. Orain gizajoa bere lan goikarri oiekin nastuxamarra dabill eta baleike zuri beste gauza bat iruditzea. Bañan bereala xinixtuko dirazu egi egia esaten dizuala. Ongi entzun: Andoni seme bezela, zu alaba zaitut; biok berdiñ maite zaituztet;

ez aztu gero zure amaren urrena, bigarren ama, egitazko ama, amak bezela maite zaituana, ni nazula.

Bixenta besoetara joan zitzaion eta an egon ziran biak luzaro elkarri eantsita; eta alabarengatik izan ez ba zan aldi baterako ba zeuden. Emakume gaixo arrek ez zuan aspaldiñ alako alaitasunik izan. Ordun iruditzen zitzaion mundua ederra dala ta bizitzari eutsi egin bear zaio-la.

—Exur berrik dauzkat. Laixter amona izango zera. Andoniren semea edo alaba emen daramat.

—Antz emana negon, musu bat emanaz esan zion. Berealaxe idatzi bear diot semeari. Zuk ezer ez esan. Neonek esango diot dena. Gañera esango diot zure gogoa litzakela mutilla ba da Andoni izatea ta nexka ba da nere izena ipintzea. Ondo al derizkiotzu?

—Bai, ama, bai; au bezelako egunik ez nuan aspaldin izan.

Bixentaren etxean exeri aldi bat egiñ ondo-rean, ama-alabak azkenengo trenean beren errira joan ziran.

Ondorengo egunetan Bixentarentzat ixillik egotea errez al zan? Andoniri idatzi zizkan denak bere pozean, naiz Andonik erantzungo ez ziola jakin. Eta orduan, Jainkoak daki zergatik eta nola, buru barrunbeko gauzak orrelako mixterioak izaten dituztelako, batbatean bururatu zitzaion bere lagun txarraren eskutitzari zer egin ote zion. Asi zan billa bañan iñun ez zan agertzen. Zalantzarik ez zegon: Bogotako etxean aztua izango zuan. Ala gertatua ba zan nork Andoniri burutikan kendu kapitana aztua ez zeukala? Berriro, Bogotan egin zuan lez, ixilldu egin zion gertaera ori.

Sei illabete ziran Bixenta jaiotetxera etorria zala. Zeñen egun zoragarria izan zuten mutill eder bat jaio zanean. Amagiarreba bereala agertu zan. Zionez, semearen arpegia berbera zuan. Bixentaren lenengo itzak, oitxek: «Esan zaiozue nere senarrari Uriaurre ta Ozama'tar Andoni jaio dala, eta orain, bera berandugo etorrira ere, ajolarik ez zaidala, bere irudia emen daukadala ta».

Bixenta emakume sendo ta gordiña zan. Aurra egin ondorean, zilimoni gutxi. Irugarren egunerako jeiki zan, eta bostgarrenean bere bi

aurrekin an igo zan saletxera, txorakeri ori egiten zualako etxeko guztik aserretu ondorean. Aur bat magalean eta bestea bularrean, an zegon luzaro Ameriketara begiratuaz, buruarekin bezela begiekin zerbait ikusiko balu bezela.

Urrengo egunean senarrari idatzi zion: «Andoni, nere biotzeko senarra: Bi aurrek magalean dituala ez zenduke xinixtuko zeñen zori onean ari naizen zuri idazten. Gauza batek bakarrik ituntzen nau: zazpi illabete oietan zure esku-titz bat bakarrik ez izateak. Zer dezu Andoni? Itz egingo ba zenduke, ziur laixter alaituko ziñakela, bañan zure oldozmenak gorderik daukatzun bitartean nik eziñ ezer egin nezake. Askotan gogoratzen zait ongi ezagutzen ez nazualako kapitanaren irudipenak dituzula. Parragarria litzake. Zer esango ote zenduan nere emengo lagun zital batek orrera idatzi zirana ikusi ba zenduan?: ni zurekin ezkondua ez negolakoan nere billa errira etorri zala alargundu zanean; eta berak, lagun gaizto orrek, baezpada, nere aginduk egingo zituala. Ez, gizajoa, ez; Bixenta zurea bakarrik dala ta geiago beste iñorena izango ez dala ziur xinixtu lezazuke! Iru itz bakarrik esan

zaizkidatzu, bañan aiek neri: “Osasunez ongi nago”. Orduan, orain eta beti zuk ots egin zai egongo naiz. Ongi dakizu zure itz erdi bat naiko dedala egunik galdu gabe zuregana joateko. Zure zurea, musuz estaliz, Bixenta».

—XVII—

Zeñen egia dan mundu onetan zori onik ez dagoala. Atsekabeak atsekabearen atzetik. Bixentaren eskutitza Colombia bidean zijoala, Colombiatik beste bi zetozen beretzat. Karteroak neskameari, «Etxekoandre gaztearentzat», esan zionean, arritu zan. Andonirena ote zan ba? Bestela zeñena leikian? Neskameak, igo zanean baten orde z bi eraman zizkan. Biak Colombiakoak. Dardar jarri zan, eta bere amari esan zion gauza onik ez zala. Bat, garbi, olakoa; besteari antzik ez zion eman, emakumeak idatzia zala besterik. Amaren alboan exeri ta ia asnasik gabe olakoa iriki zuan Andonirena izango zalakoan. Nagusitako batena zan: «Gure etxekoandre agurgarria: Ez dakizu zenbateraño samintasuna daukadan zuri ondorengo egi au esateko. Andoni, guztiok ainbeste maite genduan Andoni, eranegun arratsean ill zan eta atzo elizkizunak egin geniozkan» (Bixenta korderik gabe erori zan. Amaren deadarrera etxekoak billdu ziran eta oiera eraman zuten.

Laixter pasa zitzaion. Bere anaiari mesedez irakurtzen jarraitzeko esan zion). «Osasunez ongien zebillenean ezerezkeri batek eraman zuan. Zoritxarreko makina batean langille berri bati erakusten ari zala, arramaska bat egin zuan. Aintzakotzaz artu gabe, lanean jarraitu zun, bañan bigaramonean gaiztotu eta pasmoak jo zuan. Septizemia edo alakoarekin, al egiñ guztik ezertarako balio ez zutela, adixkide asko bere inguruan giñala, Jainkoaren besoetara joan zitzaigun. Nagusi guztien izenean esaten dizut zenbaterañoko nekea sortu zaigun. Andoni bezelako bat ez daukagu billaturik. Emen barrenen dijoakizun kartestalki au, aspalditxoan Andonik gure eskuetan utzia zeukan zuri bialtzekotan baldiñ illtzen ba zan. Emen, edo emendik edozein gauza nai ba zenduke, gogoz, sendikoak ba giñake bezelaxe, egingo dizugu. Bitartean jakin zazu zure oraingo samiña gurea dala».

Zer egiten zuan ez zekiala, berak Andonirena ideki zuan. «Irudipenak, arrokeriak eta zipotzkeriak ekarri naute ontaraño. Emen dauden nere ezur oiek eraman ditzazu orrera gaur edo biar zurearen ondoan gure aberrin izan ditezen. Ez

nuan uste orrenbeste maite ziñuanik. Andoni». Algara batean, marru bestean, samiñez eta pozez lertu bearrean, benetako eroa zirudin. «Andoni nolakoa zan ba nekian, bai. Au zan Andoni, orain betiko galdua. Gizajoa!»

Beste eskutitza egun batzuetan aztua egon zan. Miren Orreaga, lekaimearena zala usandu izan ba zun lenago irikiko zuen. «Naiz ez ezagutu, nere adixkidea: Ez arritu orrela izentatzea, beste iñork itz egiñ ezin lezaizuken bezela itz egingo dizut eta. Ba dakit olatik idatzi dizuela ta Andoniren gertaeratzaz jantzia zaudela. Nagusi oiekin bein bañan geiagotan itz egin det gaixo zegonean eta gero elizkizunak antolatzeke, ta ez arritu nik jakitea. Lenengo, xinixtu zazu Jainkoaren ondoan dagola. Nik illtzen ikusi nuan eta an daukazute zuk eta zure bi seme-alabak laguntzallerik onena. Gero, jende mordoak billdu zirala elizkizun ederrenetakoetarako; iñork ez zuan uste ainbeste ezagun eta ainbeste maite zutenik zituala; izen ona utzita joan da. Nolatan tarte ortan azaldu nitzan? Nagusik ba zekien noizean bein gure etxera etortzen zala, eta gaixotu zanean iruditu zitzaioten izparringikoarekin

batean guk jakin bear genduala. Bereala agertu nitzan ospitalera, eta etxera lotara bakarrik etortzen nitzala al egiña lagundu nion. Gure ezagueran nundikan zetorren jakingo dezu noski: Medelinera joan zanetikan. Andikan aurrera norbaitekin lasaitu bear eta neri esaten zizkidan denak. Nik gogoz artzen nuan bestela erotzeko zorin ikusten nualako. Pozik ba zeudezke: zuk maite zenduan ainbat berak maite ziñuan. Asieran bere kezka ta irudipenak ba zituan bañan laixter utzi zitun. Andik aurrera, zurekin garbitasunak nundikan asi ez zekiela joaten zitzaion denbora. Azkena esan zituan bi itzak oitxek izan ziran: "Ama... Bixenta...". Oso ona zan. Nexka beti zure ondoan izango dezu ta ez dago bildurrik; mutill orri erakutsi zaiozu aita beziñ ona izaten. Uste det asieran "adixkide" esan dizuanean oker ez nebillela. Ander eta Andoni andik etorri ziranean, zu ta ni alatsuk giñan elkarren berri asko jakin gabe. Orain, naiz nik borondatez utzia izan eta zuk eriotzak eramana, biok berdintsuk izatera etorri gera. Ez dago zer esanik, emen edozein gauza egin nai ba zenduke oso zure mendean naukazula nai dezuana egiteko. Agindu besterik

ez daukazu. Bitartean eta gero, nere otoitz bero-
enak zu eta zure bi aurren alde izango dira.
Jainkoaren laguntzarekin, Miren Orreaga».

Eskutitz ori Bixentak amar bider bata bestea-
ren ondorean irakurri ez ba zuan, ezta batere ez
zuan irakurri. Eziñ ase. Ain egokia iruditzen
zitzaion. Gañera, orain beste alde batetik egia
jakin zuan. Betirako zalantzak joan zitzaizkan.
Bedeinkatua Andoni bakarrik Medellinera joan
zan eguna! Eta bedeinkatua Miren Orreagak
bezelako biotza duan emakumea!

Andikan aurrera, Bixentaren burutazio guztia
Andoniren ezurrak noiz eta nola ekarri zezazkian
jakitea zan. Zeruk eta lurak nastu zituan. Izpa-
rringiko adixkide aundiak, Mirenek eta olakoak
garbi esan zizkaten. Baita ere garaia irixtean
berak ezertarako joan bearrik ez zeukala. Berak
denerako.

Asteak joan ziran adixkideen bixitak zerbait
arindu arte. Ez bere errikoak bakarrik, baizik
Andoninekoak ere etorri zitzaizkan. Izketak alpe-
rrikakoak ziran. Emakume arren samiña ez zan
berriketakin kentzekoa. Noizbait aztutzen joango
zitzaion (bestela nola bizi?) bañan orduan Ando-

ni biotzaren barruan sartua zeukan eta ez zegoen alaitzerik. Illabete egin zuan etxean atera gabe. Lenengo atera zanean saletxe aldera artu zuan. Ez bat eta ez beste, bidean kapitana inguratu zitzaion, bañan Bixentak ain barrundik asarreturik esan zion: «Zoaz ortik, likixkeria». Kapitana ez zan geiago erri artan agertu.

—XVIII—

Denborak aurrera zijoazen, bañan emakume ura ez zan aldatzen. Etxetik beltzez jantzita, ez txapel ginballa edo sonbreroarekin baizik burua ta musuerdia mantaliñaz estalita ateratzen zanean beñere bañan liraiñ eta ederragoa agertzen zan. Eta zertara ateratzen zan ba? Beti beti saletxera joateko. Erriko mingain luzeak, «Ozamaneko txoroa» deitzen asi ziran.

Saletxeko atean, garai batean bezela, exeritzen zan Amerika aldera begiratuaz. Orduk egiten zituan bere artan. Jeixten asterako deadar bat egiten zuan: «Ekarriko zaitut, bai, Andoni».

Deadar ura aurreko mendiak jo egin eta itzulean etortzen zanean, beste mundutik ba letorke bezela entzuten zan: «Andoni... ndoni... doniiii...»